



Haririk

**Kalitateko enplegua,
bizi baldintza duinak lortzeko**

Enplegu politiken analisisa eta alternatibak

ipar•hegoa



IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

KALITATEKO ENPLEGUA, BIZI BALDINTZA DUINAK LORTZEKO ENPLEGU POLITIKEN ANALISIA ETA ALTERNATIBAK

AURKEZPENA

PALANKA EUROLIBERALA (Michel Husson)

1. EUROPAR ERAIKUNTZAREN IZAERA

2. OFENTSIBA NEOLIBERALAREN ILDO NAGUSIAK

- Zerbitsu publikoen pribatizazioa
- Sistema sozialak lehian jartzea

3. EREDU EKONOMIKO BATEN KONTRAESANAK

4. ENPLEGURAKO ESTRATEGIA BAT?

5. BESTELAKO EUROPA BATERAKO ELEMENTUAK

- Gutxieneko soldata eta Europako konbentzio kolektiboak
- Behar sozialak asetzaren alde
- Osoko enpleguaren alde
- Finantza-kapitala tasatzea eta kontrolatzea

ONDORIOA

MALGUSEGURTASUNA ETA EUROPAKO ENPLEGU POLITIKA (Mikel de la Fuente)

1. SARRERA: CORPORATE GOVERNANCEA ETA ENPLEGUA

2. ENPLEGUAREN EUROPAR ESTRATEGIA

3. ENPLEGUAREN EUROPAR ESTRATEGIAREN HELBURUA: ENPLEGU TASAK HANDITZEA

4. HOBARIAK ETA ZERGA-SALBUESPENAK EZARTZEKO JOERA GERO ETA HANDIAGOA, ENPLEGU POLITIKAREN TRESNA GISA.

5. MALGUTASUNA, ENPLEGUA SORTZEA ETA ERRENTA BANATZEA.

6. MALGUSEGURTASUNA (FLEXICURITY): ASMAKIZUN BERRIA

BIBLIOGRAFIA

SARRERA

Begi-bistakoa da lan munduan aldaketa ugari gertatzen ari direla eta horrek dauzkan eragin okerak, oro har, lan harremanak osatzen dituzten eskubideetan.

Lisboako estrategia deritzanak Europar Batasuneko estatuetan garatzen diren lan erreforma eta babes sozialeko murrizketak bermatzen ari dira aspalditik. Europan munduko ekonomiarik lehiakorrena eraikitze asmoz, malgutasunean, murrizketan eta pribatizazioan oinarritutako babes sozial eta enplegu-politikak jorratzen ari direla ikus dezakegu. Lan zuzenbidea modernizatzeko beharrianak eta flexisegurtasuna alternatiba gisa aurkezteak lan harremanen prekarizazioa, produktio erritmoak areagotzea eta bizi-baldintzak duinak izateko nahikoa ez diren soldatak ezkutatzeko dituzte.

Jadanik enplegua ez da eskubidea, patronalaren eskaintza baizik eta ondorioz, baldintzak alde batekoek bakarrik ezartzen dituzte; hitzarmen kolektiboak albo batera utzita eta sol-soilik interes ekonomikoetan oinarrituta.

Bestalde, gaur egungo zuzenbide-esparruak estatuaren esku uzten du bai lan harremanak arautzea, bai Europa mailako interlokuzioa.

LAB sindikatuaren ikasketa sindikaletarako IPAR HEGOA fundazioak gai honi heltzeko, hausnarketa eta eztabaidarako jardunaldia antolatu zuen irailaren 25ean.

Jardunaldian MICHEL HUSSON eta MIKEL DE LA FUENTEK parte hartu zuten eta orain, IPAR HEGOA Fundazioaren HARITIK argitalpenean haien interbentzioak argitaratzen ditugu duten interesagatik.



PALANKA EUROLIBERALA

MICHEL HUSSON

IRES Institutuko Ekonomilaria eta Ekonometralaria

ATTAC - Frantziako Kontseilu Zientifikoko kidea

Copernaque mugimendu sozialaren aldeko Fundazioko kidea

Konstituzioari buruz Frantzian gertatutako eztabaidan, “baiezkoaren” aldekoek Europaren kontra egotea leporatu izan diete etengabe “ezezkoaren” aldekoek, Europa eraikitzeke modu bakarra egongo balitz bezala. Kapitulu honen xedea postulatu hori kritikatzeko da. Erakutsi nahi du bide euro-liberala gaitzetsi beharrekoa dela beraren ondorio ekonomiko eta sozial hondagarriengatik; gainera, zorionez, hori ez da bide bakarra.

1. EUROPAR ERAIKUNTZAREN IZAERA

Idea bakar bat gorde behar izango bagenu, hauxe izan liteke: europar eraikuntzaren izaera aldatu egin zen 1980eko hamarkadaren erdian, eta 1986ko Agiri Bakuna fase euroliberalaren agiri sortzailatzat har daiteke.

Europako Erkidegoaren proiektua Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zen, bi beharren elkar-gunean. Lehenengo beharra zen polo europar autonomo bat eratzea, garai hartako bi mundu-potentzia nagusiei begira. Sobietar Batasunari dagokionez, “bloke sozialistaren” hedapenaren kontrako fronte bateratu bat eratu behar zen, eta, horrekin batera, marko bat eskaini behar zitzairen Mendebaldeko politikariei, krisi iraultzaileak sortzeko arriskuei aurre egiteko. Estatu Batuei dagokionez, eragotzi nahi zen Marshall planak –berreraikuntzari laguntzeko sortua- mendetasun-posizio iraunkor batean jartzea herri onuradunak, hau da, laguntzaren bidez mendetasun-erlazio bat sortzea Europako herrietan. Horrek ez du esan nahi proiektu europarra Estatu Batuen kontra zuzentzen zenik, ezta neutraltasun simetrikoa bilatzen zuenik ere bi potentzia nagusien aurrean; izan ere, beraren esanahia zen Europako herriek bazkide autonomo moduan –estatus horrekin- funtzionatu nahi zutela Mendebaldeko blokearen baitan.

Bigarren helburua ekonomikoagoa zen. Kontua zen berreraikuntza koordinatzea eta planifikatzea. Horregatik, Europako lehenengo instituzioetako bat IAEE izan zen (Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa – “CECA”-), hau da, oinarritzko bi lehengai horien ekoizpena zuzendutako plangintza-agentzia bat (oso kuantitatiboa).

Dena dela, hasierako helburua handinahiagoa zen, zeren Europako Defentsa Erkidego bat eratzea planteatzen baitzuen (EDE), hau da, bestela esanda, Europako armadak koordinatzeko erakunde bat. Helburu hori goizegi heltzen zen, nonbait, eta Frantziako Parlamentuaren bozketa batek atzera bota zuen proiektua 1954an, Alemania berrarmatzera eramango zuelakoan. Hala, europar eraikuntza alderdi ekonomikoetan geratu zen, Errumako 1957ko itunarekin; bertan, merkatuko ekonomia-erreferentzia agertzen zen printzipio moduan. Nolanahi ere, garai hartako politiken praktika erreala konpromiso forma bati zegokion, hots, “Alemaniaren merkatuko ekonomia soziala” eta Frantziaren “esku-hartze” publikoa uztartzen zituen konpromisoari. Erreferentzia horiek komunak ziren garai hartan Europako Ekonomia Erkidegoa osatzen zuten sei herrientzat: Alemania, Frantzia, Italia eta Benelux (Belgika, Herbehereak eta Luxenburgo).

Herri horietan guztietan baziren alderdi komun batzuk: Estatuaren interbentzionismoa, sektore

publikoaren garrantzia, eta babes sozialeko sistemen hedakuntza. Garai hartan benetan ezarri zen politika bateratu bakarria NPB izan zen (Nekazaritzako Politika Bateratua). Gainerakoari dagokionez, EEEren barneko trukeen hazkundea nazio mugakideen dinamika nazionalen berezko emaitza zen, europar politika espezifiko baten ondorioa baino gehiago. Eskandinaviako herriek eta Erresuma Batuak ere bilakaera berdintsua izan zuten, EEEtik kanpo egon arren –garai hartan, EFTAko kideak ziren (Europako Merkataritza Librearen Elkartea)–.



Benetako europar politikaren asmoa sistema fiskal eta sozialen harmonizazioa bilatzea zen. Bultzada nagusia ez zettorren maila europarretik, baizik eta logika nazionalen koordinaziotik, garai hartan fordismoaren mende baitzeuden. Eredu horren oinarri ekonomikoak produktibitatearen hazkunde bizkorra eta indar sozialen oreka erlatiboa ziren; izan ere, horren emaitza zen produktibitatearen irabaziak langileen soldatak orekatzea zuzentzen zirela, dela zuzeneko erosketa-ahalmenaren bidez dela soldata sozializatuaren hazkunderen bidez (osasuna eta erretiroak). Soldatiko langileen erosketa-ahalmenaren hazkunde mardula konpentsatuta geratzen zen produktibitatearen irabazi arinekin, hala-ko moldez non mozkin tasak mantendu zitezkeela kapitalarentzat onargaria zen maila batean.

1960ko hamarkadaren amaieran, eredu horrek talka egin zuen kontraesan bikoitz baten kontra. Lehendabizikoa internazionalizazio-prozesuaren zabalkuntza zen. Europako talde handiek lotura sendoak gordetzen zituzten beren jaioterriekin, baina haien horizontea Europako merkatutik haratago hasi zen joaten. Hori are nabariagoa zen AEBetako eta Japoniako taldeen lehiarekin topo egiten zutenean, talde horiek gero eta gehiago inbertitzen baitzuten European. Hala, garai hartan bi estrategia jarri ziren aurrez aurre, Frantziako eskuineko bi politikarien enfrentamenduan islatu zen bezala, hots, Pompidouren eta Giscarden arteko enfrentamenduan islatu zen bezala. Pompidou tradizio gaulistari atxikita zegoen, eta, beraz, beraren proiektua zen talde handien eta sektore publikoen arteko itun sendoari eustea, “txapeldun nazionalak” indartzeko nazioarteko lehiaren aurrean. Giscard, berriz, kapitalaren frakzio internazionalizatuenaren interesen ordezkaria zen, eta, hortaz, “birbanaketa industrialak” bultzatzen zuen, hots, Estatuarekiko loturak haustea, talde handien nazioarteko estrategien mesederako.

Azpitarratu behar da, horri dagokionez, kapitalaren frakzio esanguratsuen artean ez zuela inork ere proposatu benetako kapital europar bat eratzea, aurrerantzean nazionalak soilik izango ez ziren “txapeldunak” sortzeko –ez nazionalak soilik, baina ezta zuzenean internazionalizatuak ere (garai hartan ez zen artean ere “mundializatuak” esaten). Horixe da europar eraikuntzan oraindik ere falta den kate-maila: logika nazionalak elkartzearen eta munduko merkatura erabat irekitzearen artean ez da benetan egon, inoiz ere, europar integraziorako proiektu bat, Europako talde handien arteko akordio pribilegiatuetan oinarrituta. Alde horretatik, esan daiteke europar kapitala ez dela existitzen, eta europar eraikuntza -beste esperientzia historiko batzuk ez bezala- ez dela gauzatu kapitalak kontzentratzearen eta zentralizatzearen bidez, eratze bidean zegoen esparru ekonomiko berriaren mailan.

Krisiaren bigarren faktorea eredu fordismaren agorpena izan zen. Fordismoa ez zen paradisua, baizik eta berdintasunik gabeko esplotazio erregimen bat: garai horretako borroka sozial guztiek garbi uzten zuten ez zela onartzen lanaren antolaketa kapitalista hura, hau da, lanaren intentsifikazioan oinarritutako antolaketa hura. Borroka horiek agerian utzi zuten langileek ez zutela gehiago onartzen “konpromiso soziala”. Arbuio hori produktibitatearen irabazien geldiunearekin batera etorri zen, hau da, irabazi horiek utzi zitoten erosketa-ahalmenaren igoerarekin parekatuta egoteari. 1974-75eko atzeraldi ekonomiko orokorrak egundoko beherakada ekarri zion mozkin tasari, eta, beraz, krisi irekiera eraman zuen ekonomia.

Aroaren aldaketa denbora-tarte batzuetan gertatuko zen. Krisiari berehala emandako erantzunak ohiko errezeta keynesiarrak erabili zituen: ekonomia aurrekontuaren bidez bizkortzea, zirkuitu ekonomikoan dirua injektatzea. Dena dela, buruzagiak berehala konturatu ziren errezeta horiek ez zutela funtzionatzen: makina ekonomikoa berriz bultzatu beharrean, ordura arte ezezaguna zen egoera

bat ekarri zuten: geldiunea eta inflazioa aldi berean ("estanflazioa"). Bigarren atzeraldi orokorrak (1980-81) heriozko kolpea eman zion sistemari eta politika erabat berriak aplikatzeari ireki zion bidea: iraultza neoliberala da, boterera gobernu ultra-liberalak (Thatcher Erresuma Batuan), liberalak (Helmut Schmidt Alemanian) edo sozio-liberalak (frantziar ezkerria) eraman zituen.

Aldi horretan agertu zen europar eremua erabiltzeko beharra, iraultza neoliberalak antolatzen bitartekotzat hartuta. Hor bi arrazoi elkartu ziren: lehendabizikoa bankaren esku-hartze oldartsua izan zen. Izatez, politika neoliberalak erabiltzen duten presio-bideetako bat "finantza-talka" da; horren lehenengo urratsa 1979an eman zen, Estatu Batuetan, interes tasak bortizki igo zirenean: igoera horren arrazoa diru-sarreraren banaketa zuzentzea zen, eta bat dator multinazionalen estrategiarekin, hau da, krisiaren ondorioetatik ihes egiteko modua berrantolaketa bikoitza egitea da: industrialak eta finantzarioak. Dena dela, Europako mailak badu beste interes bat: herri bakoitzean aplikatutako politika neoliberalen koordinazioa ahalbidetzea, nolabaiteko supralegitimitatea emanaz. Europar erakuntza helburu horrekin soilik erabiliko zen aurrerantzean.

Soldaten jaitsiera gogorra eta finantza-merkatuen desarauketa nagusi izan ziren garai baten ostean, iraultza neoliberalaren sinboloa Europako Agiri Bakuna sinatzea izan zen, 1986an. Agiri horrek prozesu bat ireki zuen, 1993ko urtarrilaren 1ean "Merkatu handia" eratzera zuzenduta. Prozesu horrek moneta bakarrerantz joateko aukera zuen bere baitan, eta herrien artean geratzen ziren barrera fiskalen desagertzea ekarri zuen. Merkatu handiaren proiektu hori Erromako Itunaren printzipio sortzailearen aplikazio erreala bezala agertzen da, hau da, lehia librearen printzipioaren aplikazio erreala bezala. Eta printzipio hori merkatu publikoetan aplikatzen zen bereziki, zeren hor aukera baitzegoen lotura estuak sortzeko Estatuaren eskarien eta enpresa nazional handien artean (Estatuko Kapitalismo monopolista izenez ezagutu dena). Hain zuzen ere, Agiri Bakuna justifikazio gisa erabili zen 1980ko hamarkadaren erditik aurrera herri guztietan gauzatuko ziren pribatizazioetarako. Hala, data horrek funtsezko norabide-aldaketa ekarri zion Europa eraikitzeke metodoari -Europa neoliberalaren aldekoek aldaketa horren neurria ahanzarazi nahi lukete gaur egun-. Aldaketa horren muina hau da: harmonizazioaren bidea baztertzeko eta sistema sozialak lehian jartzea.

2. OFENTSIBA NEOLIBERALAREN ILDO NAGUSIAK

1986ko Agiri Bakunak ekarri zuen iraultzatik aurrera, ofentsiba neoliberalak modu koherente eta artikulatuan funtzionatu zuen, gizartearen alor guztietara iritsita. Dena dela, politika nazionalaren eta europar mailaren arteko artikulazioa aldatu egiten da eremu batetik bestera. Europar instituzioek politika nazional horiek koordinatzeko rola joka dezakete, norabide berean joan arren, eta "erreformen" agenda definitzen lagundu. Aldi berean, haatik, esku-hartze zuzenagoa ere izan dezakete, lege-indarra hartzen duten zuzentzarauak erabiliz. Hori da, batez ere, zerbitzu publikoen "liberalizazioaren" kasua eta sistema sozialak lehian jartzearena.

ZERBITZU PUBLIKOEN PRIBATIZAZIOA.

Ikusi dugunez, Erromako itunaren potentzialtasun liberalak Merkatu Handia aplikatzerakoan soilik mobilizatu dira, zerbitzu publikoen pribatizazio-bolada bat abiatuz. Europako instituzioen motor moduan jokatu dute prozesu horretan, Liburu Zuriak (edo berdeak) plazaratuz, hau da, formalki izaera behartzailea ez izan arren gero zuzentzarauak (europar legeak) hartzerak eraman duten testuak plazaratuz, hainbat sektoretan: posta, telekomunikazioak, garraiabideak (airea, itsasoa, errepi-dea, trenbidea), elektrizitatea.

Prozesu horrek dogma liberalarekin eta europar inperatiboarekin du zerikusia. Karl Van Miertzen iritziz –garai hartan Lehiaren europar komisarioa zen-, “lehiak etengabeko presioa egiten du zerbitzuen kostuan, hots, monopolio erregimenean kostu handiak omen zituzten zerbitzuan kostuan”. Bere esanetan, “EBko Estatuek monopolio moduan antolatuta izan dituzten sektoreak (energia, ura, telekomunikazioa) Europar Batasuna abiatzeko prozesuaren oztopo nagusien artean daude.

Doktrina hori ezeztatzeko lehenengo modua da azpimarratzea ez dagoela inolako loturarik ustezko eraginkortasun ezaren eta pribatizatzeo ginen artean. Are gehiago, Frantziako kasua ikusita kontrakoa ere esan liteke, hau da, sektore eraginkorrak (edo, gutxienez, errentagarriak) dira pribatizatzen diren lehenak. Beraz, enpresen etekinak irizpidetzat hartuz gero, erraza da pribatizazioen eraginkortasuna neurtzea. Baina hori oso bestelakoa da eraginkortasun sozialari begiraturik gero, hau da, behar sozialei berdintasunez erantzuteko ahalmenari begiraturik gero: tarifak igotzen dira, eta pobreak bazterrean geratzen dira arian-arian.

Zerbitzu publikoen liberalizazioaren ondorio sozialen kritikari beste bat gehitu diezaiokegu, hau da, esan dezakegu liberalizazio hori Europaren kontrakoa dela. Politika estruktural guztiak eragozten ditu, eta, beraz, espazio ekonomiko homogeneoaren eraikuntzaren kontrakoa da. Adibidez, garraioaren eta energiaren eremuan, garrantzi handiko hainbat gai ezin dira modu egokian planteatu aktore publikoen presentziarik gabe. Frantzia nuklerizatu dago, eta Alemania energia nuklearra bertan behera uzteko bidean da. Nola erabaki bi aukera horien artean, edo gutxienez koordinatu, esku-hartze publikoaren palanka desagertzen bada? Garraioei dagokien, nola aukeratu ote daiteke errepidearen eta trenbidearen artean, trenbide-sareak eta autopista-sareak pribatizatzen badira? Zerbitzu publikoak desegin eta alor batzuetan ondo finkatuta dagoen lehiari ireki aurretik, haien arteko sareak konektatu beharko lirake eta Europako instantzia arautzaile baten agintearen mende jarri.

Badugu merkatu bateratua eta badugu moneta bateratua. Baina, zergatik ez dago energiaren europar agentzia “bateratu” bat, posta “bateratu” bat, trenbide-sare “bateratu” bat, eta abar? Hor ikusmolde handinahi bat aurkituko genuke, hau da, Europako batasuna bestelako modu batean planteatuko litzateke, modu koherentean eta mobilizatzailean, oraingo Itunak dioenari bizkarra emanez, zeren beronek debekatzen baititu “lehia faltsutzen duten edo faltsutu dezaketen laguntzak, enpresa edo ekoizpen jakin batzuei mesede eginez”.

SISTEMA SOZIALAK LEHIAN JARTZEA

Europar Batasunean Estatu berriak sartzea argigarria izan da, zeren sarrera horrek galdera hau plantatu baitu modu garbian: nola antolatu daiteke espazio ekonomiko bat, baldin eta hor produktibitate eta soldata maila oso desberdinak dituzten herriak elkartzen badira? Europar eraikuntzari buruzko eztabaidaren funtsezko galdera horri bi modutan erantzun dakiok: lehia, edo harmonizazioa. Harmonizazioaren bidearen oinarri ekonomikoa produktibitatea doitzea da, produktibitate hori txikiagoa den herrietan, soldatak atzetik erakarriz. Hasierako distantziak murrizten dira, eta bada goranzko konbergentzia. Soldaten kostuaren argudioa nagusi den adarretan kontzentratu beharrean, ukitutako herriek “prozedurak igotzen dituzte” eta espezializazioek ere konbergentziarako joera dute.

Dena dela, prozesu hori ez da automatikoa: hasteko, herri horien aurrerapen-latitudea prezioena baino handiagoa izan behar da, produktibitatearen doikuntzarekin eskutik, eta konbergentziari eusten laguntzen dioten transferentzien onura behar dute. Jarraian, soldatak igotzeko arau bat ezarri behar da, produktibitateari atxikita, eta hori borroka sozialen bidez gertatzen da samitan. Mediterraneoko herriak (Espainia, Portugal, Grezia) European sartu zirenean gertatutakoa horren adibidea izan daiteke.



Sistemak lehian jartzea lehenesten duenez, benetan gauzatzen ari den europar eraikuntzak dakarren logika neoliberalak oztupo nabaria da horrelako egoerarako. Hasteko, transferentzien bidea ixten du, Europako aurrekontua mugatuz eta baliabide berrien sorrera edo maileguaren erabilera debekatuz. Gero, erabateko lehentasuna ematen dio prezioen egonkortasunari, eta doikuntzak egiteko aukerak murrizten ditu. Izatez, EBra sartutako herri berriak Maastrichteko irizpide famatuak aplikatzen ari dira, haien monetak eurora sartu ez badira ere. Bukatzeko, eta batez ere, aukera liberalak ez du inolako araurik onartzen soldaten alorrean; bestalde, kapitalen mugimenduen erabateko askatasunak beheranzko presio nabaria egiten du.

Bigarren aukera horren ondorioak, beraz, harmonizazioaren kontrako norabidean doaz: produktibitateen irabaziak ezin dira soldatako langileengana bideratu, zeren lehiaren presioak hori blokatzen baitu; aldi berean, espezializazio kaltegarria gertatzen da. Funtsezkoa da ulertzea konfigurazio hori kaltegarria dela soldatako langile guztientzat, lan egiten duten herriaren "saillapena" zehazki delarik ere, zeren lehia orokorraren nagusitasunak soldaten aurrerapena blokeatzen baitu, hala herri aberatsetan nola pobreetan. Soldaten eremuko desberdintasunak handitzen dira, eta soldata-kondizioak hondatze bidean jarraitzen du babes sozialeko sistemen "erreformen" eraginez. Ekoiztutako ondasunen berdintasunik gabeko banaketak estuago lotzen ditu hazkundera eta enplegua; bitartean, metatutako kapitala munduko gainerako lekuetarantz banatzen da.

Europako politikek lehiaren bidea aukeratu dute modu garbian, Bolkestein zuzentarauarekin, batez ere zerbitzuen alorrean. Zuzentarau horrek zuzeneko lehian jarri nahi ditu soldatako langileak europar espazioan. Beraz, ez da harriztekoa zuzentarau-proiektu horrek funtsezko rola jokatzen izana Frantziako eztabaidan, erreferendumaren unean, zeren ederki erakusten baitzuen lehia konstituzionalizatzeko borondatea. Ikuspuntu horretatik, Frantziako ezkerrearen "ezezkoak" harmonizazioaren logikaren aldeko hautua adierazi du modu garbian. Xenofobiatik guztiz urrunduta, ezezkoak bidea eman du nazioz gairako klase-ikuspegia berriz aktibatze, errealtate hau abiapuntutzat hartuta: Europa osoan, soldatak lehia jeneralizatuan jartzearen etekinak eskuratzen dituztenak jabeak dira.

3. EREDU EKONOMIKO BATEN KONTRAESANAK

Eredu euroliberalak hiru elementu hauek ditu oinarritzat: moneta bakarra edo bateratua, egonkortasun ituna, europar aurrekontua. 1990eko hamarkadaren ostean –urte horiek oso txarrak izan ziren hazkunderentzat eta enpleguarentzat-, badirudi eredu horrek emaitza onak izan dituela, zeren Europar Batasuneko herrietan hamar milioi lanpostu sortu baitira 1997 eta 2001 bitartean. Itxuraz, horrek frogatzen zuen Maastrichteko euroa uztartu egin zitekeela enpleguarentzat onuragarriagoa zen politika ekonomiko batekin. Koiunturaren aldaketak, baina, ilusio horiek suntsitu zituen berehala; hala, praxiak hori gezurtatu aurretik, garbi zegoen lortutako arrakastak ez zirela errezeta neoliberalen aplikazio sistematikoaren emaitza, baizik eta, hori baino gehiago, monetaren, finantzen eta aurrekontuaren eremuko betebeharrak erlaxatu izanaren emaitza.

Barealdi hori parentesi bat baino ez zen izan, zeren aldeko faktoreak kontra jarri baitira: dolarra jaitzen hasi da, eta soldaten zein aurrekontuen apaltasuna lehengo tokira itzuli da. Europar Batzordearen esanetan, "abiadura jaitsi da espero gabe", baina koiunturaren aldaketa hori bere politiken ondorioa da, eta baita ereduaren kontraesanen adierazlea ere. Alemaniako paradoxak ederki erakusten ditu kontraesan horiek. Orain dela gutxira arte, Alemaniako ekonomiaren beherakada izan da europar koiuntura narriatu duena; eta, hala eta guztiz ere, orain dela gutxi "soberanistek" Europa alemana zuten buruan, hau da, marko-eremua eta zertxobait gehiago.

Europar eraikuntzak Alemaniako ekonomian izan duen bumeran efektu horrek askok ikusten zuten zerbait nabarmendu du, alegia, egonkortasun ituna "lelokeria" hutsa dela, Batzordearen buru izandako Romano Prodik bere garaian deskribatu zuen moduan. Bolada oparo batean sinatuta, Itunak ez zuen gainditu lehenengo koiuntura-ekaitza. Lelokeria horren arrazoiak aski ezagunak dira: Itunak aurrekontua orekatzera zuzendutako ahalegin erantsiak egitera behartzen ditu herriak, koiuntura txarra izan arren, nahiz eta egin beharrekoa kontrakoa izango zen, hots, aurrekontuak eskariari laguntzeko rola jokatu behar luke. Orain, Batzordea ahaleginak egiten ari da koiuntura-osagaia kentzeko aurrekontu-helburuen definizioetik, baina badirudi horren asmoa dogma salbatzea dela, Itunaren logika sakona aldatzea baino gehiago.

Nolanahi ere, kontua koiuntura-doikuntzatik baino askoz ere haratago doa. Europar eraikuntzak espazio ekonomiko integratu batean zimenduak jarriko zituela pentsatzen genuenean, 1990eko hamarkadan bi kolperen eragina ikusi dugu. Alde batetik, Estatu Batuen hazkundera Europarena baino askoz ere handiagoa izan da (puntu bat baino gehiago), nahiz eta hazkunde tasa berdintsua zen 1980ko hamarkadan. Beste alde batetik, Europaren baitan beste bereizkuntza bat gertatu da. Azken hamarkada honetan, europar herrien hazkundera %2 izan da, batez beste, baina hazkundera askoz ere txikiagoa izan da "frankoaren eta markoaren eremuan" (Frantzia, Alemania, Belgika), zeren beste herri batzuen hazkundera (Espainia, Erresuma Batua, Irlanda, Suedia eta Finlandia) Estatu Batuen hazkunderaren antzekoa izan baita.

Dibergentzia horrek erakusten du ekonomia nazionalak munduko merkatuan daudela sartuta modu espezifikoan: sentikortasun desberdina dute lehiakortasun-prezio binomioaren aurrean, kokapen desberdina dute munduko eskaria bereganatzeko, ahalmen desberdina dute kapitalak erakartzeko. Kokapen desberdin horien ondorioa da ez dela interes-komunitaterik definitzen, eta, gainera, bereizkuntza areagotzen duela bi irizpide nagusiren arabera: elastikotasuna/prezioa eta Estatu Batuen nagusitasunaren onarpena. Hori da polo franko-alemana eta EBko beste herri handiak –batez ere Erresuma Batua, Italia eta Espainia- aurrez aurre jartzen dituen aurkakotasunaren oinarria. Azken horiek ez dute hainbeste behar integrazio instituzional trinkoa, politika industrial edo lehiakortasun estrukturala, eta britainiarren kasuan ez dute ezta euroa ere behar. Erresuma Batuak rola berezia jokatzen du: oso eredu espezifiko du, baina antzekotasun handia du Estatu Batuen ereduarekin, zeren berak ere mendetasun handia baitu kapitalen etorrerarekin.

Europar eraikuntzaren modalitateek ez dituzte dibergentziako faktore horiek murriztu, larriagotu baizik; hasteko, moneta bakarraren ikusmoldearen ondorioz. Moneta bakarrak ez dakar ezinbestean beraren bidez eraturako moneta-esparruaren erabateko homogeneotasuna; aitzitik, berdintze-neurriak eta transferentziak dituen aurrekontu bat ekartzen du berekin, halako moldez non, entitate berberaren baitan, emaitza ekonomiko desberdinak dituzten erregioak existitu daitezkeen elkarrekin. Dena dela, ikusmolde neoliberal osoa kontrako norabidean doa, hots, bere asmoa da europar aurrekontua ahal bezainbeste murriztea.

Horren ostean, kanbio-politika bat behar da, eta hor europar eraikuntzaren zulo beltz batera iristen gara. Euroa abiatu zenez geroztik, euroaren eta dolarraren arteko kanbioak gorabehera handiak izan ditu. Hasieran, %30 jaitsi zen, eta gero proportzio nabarrietan hasi da igotzen. Euro/dolar kanbio-tasa horrek pisu izugarria du Europar Batasunaren hazkunderan, beraren esportazioen dinamismoaren bitartez. Izan ere, esportazio horientzat onuragarria izan da 1997 eta 2001 bitartean dolarrak izandako igoera, baina harrezkero izan duen berariazko jaitsiera kaltegarria izan zaie.

Europako herriek ez dituzte modu berdinean sentitzen fluktuazio horiek, zeren kontuan hartu behar baita bakoitzak norainoko irekitasuna duen eta zer neurritan dagoen sartuta munduko merkatuan. Hori horrela, dolarraren fluktuazioek palanka moduan funtzionatzen dute, ibilbide nazionalen arteko dibergentzia are gehiago handituz. Eta bada fenomeno horren indarra areagotzen duen faktore bat, hots: funtsezko doktrina-arrazoiengatik ez dagoela Europa mailako kanbio-politika finkaturik.

Zertarako balio dezake orduan euroak, ez bada erabiltzen europar multzoari koherentzia handiagoa emateko? Beraren eginkizun nagusia da soldata-austeritatea orokortzeko palanka bezala funtzionatzea, soldata sozializatuaren elementuetara ere iristeko (babes soziala, erretiroak, zerbitzu publikoak). Beraz, benetan existitzen den euroa ez da politika ekonomikoko tresna bat baino. Kanbioaren eta interesaren alorrean politika koherenterik ez dagoenez, eta ez dagoenez jarrera autonomorik Estatu Batuen mehatxu monetarioen aurrean, geratzen den doikuntza-aldagai bakarra soldata da.

Arazoa da politika horren ondorioa europar hazkundera beherantz eramatea izaten dela: soldata-zorroztasunaren ordaina barneko eskariaren ahultasuna da. Asmoa izango balitz soldatak izoztea finantza-sarrearen onurarako, orientazio hori hobezina izango litzateke burgesiarentzat. Baina Europa ez dago bakarrik munduan, eta dinamikotasun txikiko konbinazio horrek garrantzi izugarriko bi arazo uzten ditu konpondu gabe. Lehendabiziko arazoa espezializazio industrialia da. Politika industrialia termino tabua baldin bada Europa mailan –agerikoa denez-, politika ekonomikoaren eremuko erabakiek badute eragina espezializazioaren moduan. Hemen ere, Europar Batasunak ez du aukuraketa propiorik egin, zeren erabat kontrajarritako bi helburu bilatzen baititu: alde batetik, lan merkatuak malgutu nahi ditu, lanaren kostua lehiakorra izan dadin. Beste alde batetik, jakintzari, teknologia berriei eta horrelakoei buruzko hitzaldi potoloak egiten ditu. Beraz, fronte guztietan galtzeko arriskuan dago, hau da, bi muturren artean gera daiteke harrapatuta: alde batean Estatu Batuak ditu (beren aurrerapen teknologikoa berrerratu dute), eta bestean garapen bidean dauden herriak, oso soldata txikiak dituztenak (Europak ez du eremu horretan lehiatzerik, ezta ametsik zoroenetan ere).

Azken hamarkadak alderantziz jarri ditu Europaren eta Estatu Batuen bilakaera erlatiboak, lanaren produktibitatearen ikuspuntutik begiratuta. Ordura arte, produktibitate hori arinago hazten zen European, mantsotzeko joera orokorra gorabehera. Azken urteotan, mantsotze-joera hori nabarmendu egin da; “ekonomia berriak”, aldiz, lanaren produktibitatea bikoiztu zuen Estatu Batuetan. Konfigurazio hori luzatu beharko balitz, Europa behartuta egongo litzateke produktibitatearen atzeraldi gero eta handiago hori konpentsatzera, soldatak are gehiago murriztearen bidez; eta presio hori gero eta handiagoa izango da, zeren dolarraren jaitsierak Estatu Batuen lehiakortasuna hobetzen baitu.

Kontraesan horren benetako irtenbidea da ekonomia beste merkatu batzuetara orientatzea, barneko merkatuak dinamismo txikia baitu. Frantziaren eta Alemaniaren kasuak berdintsuak dira ikuspuntu horretatik: soldata-zorroztasunak berebiziko igoerak ekarri dizkie berriro enpresa handien etekinei. Kapitalismoaren kritikari sistematikotzat nekez har litezkeen behatzaile batzuek ere esan dute etekin horiek gehiegizkoak direla. Zer egin daiteke barneko merkatu erdipurdikoak inbertsioa uxatzen duenean? Erantzuna bikoitza da: dibidenduak beste era batera banatu daitezke eta, era horretan, finantziarizaizo prozesua areagotu; edo, bestela, beste merkatu batzuetan inbertitu, Europatik kanpo. Eskema horren ondorioa da are gehiago desegituratzen dela europar espazio ekonomikoa, diru-sarrearen banaketan dauden desberdintasuna handituz.

Europaren benetako eraikuntza ekonomikoa bertan behera uzteak ideia berri bat bultzatzen du berriz, hots, “Atlantikoaz haraindiko merkatu” berri baten ideia. Batzordeak 1998an plazaratutako ideia horren muina zen merkataritza libreko eremu bat sortzea Europar Batasunaren eta Estatu Batuen artean. Proposamen horri uko egin zitzaion bere garaian, “Inbertsioei buruzko Akordio Multilateralarekin” batera (AMI). Ideia hori, baina, berriki agertu da berriz, Europako Parlamentuak orain dela gutxi hartutako bi erabakitan. Lehendabizikoak, Europako Alderdi Popularraren ekimenez onartuak, “Atlantikoaz haraindiko lankidetzak akordio bat” proposatzen du; bigarrena ere, Europako Alderdi Sozialistak proposatua, “Atlantikoaz haraindiko harreman ekonomikoei” buruzkoa da.

Euroliberalismoak europar dimentsioa erabiltzen du, baina horrek ez du esan nahi benetako europar proiektua denik. Adibidez, XIX. mendeko eredu alemanak ez bezala, beraren asmoa ez da entitate ekonomiko berri bat batuketaz eratzea –eskualdeak batuz-. Horren arrazoietakoa bat da Europako herriak aspalditik iritsi direla munduko merkatura, bakoitza bere aldetik eta bere espe-

ziazazio propioarekin. Beraz, internazionalizazio fasea 1960ko hamarkadaren amaieran hasi da, eta merkatu bakarraren eta –gero- moneta bakarraren eraketa ezin aztertu daiteke mugimendu horren alde aurretiko baldintza bezala. Hala, bada desfase partikular bat talde handien europar oinarriaren eta munduko horizonte estrategikoaren artean. Merkatu bakarra ez da irteera nagusia, baizik eta asmo zabalago baten atzeko oinarria.

Adar batzuentzat, haatik, europar eraikuntzak europar “txapeldunak” eratzeko logika “agregatu” baten arabera funtzionatzen du. Horren eskema da, nolabait, “txapeldun nazionalen” estrategia gaulista europar eskalara eramatea –horren arrastoa “abertzaletasun ekonomikoaren” nozioaren erreferentziarekin aurkitzen dugu-. Nolanahi ere, orientazio horrek ez du inola ere estrategia nagusia islatzen, zeren beraren muina haxe baita: kontinentez haraindiko itunak eraikitzea, munduko merkatuaren konpartimentu guztietara zuzenean iristeko. Kapitalak nonahi sartzeko joera horrek “Atlantikoaz haraindiko ekonomia” sortzera darama, eta ez elkarrengandik bananduta dauden eta elkarren kontrako lehian aritzen diren bi potentzia sortzera.

Maila abstraktuan, europar merkatuaren eraikuntza beste modu batean planteatu zitekeen, hots: merkantzien eta kapitalen zirkulazioak merkatu horretan dituen barne oztopoak ezabatzea, alde batetik, eta bestetik babes-formak indartzea munduko gainerako herrien aurrean. Europar politika industrial aktiboak eskema hori osatu zezakeen, eskari publikoen eta talde industrial handiak egituratzearen arteko sinergia sortuz. Hemen, kontua ez da jakitea ea bide hori desiragarria ote zen, baizik eta egiaztatzea 1986ko Agiri Bakunak oso bestelako bat aukeratu duela. Merkatu publikoak lehiari ireki dizkio, inolako “europar lehentasunik” ezarri gabe, eta, aldi berean, politika industrialaren printzipioa bera baztertu du, alor horretan planteatu litezkeen edozein esku-hartze publiko bazterteaz batera.

Horrenbestez, merkatu bakarra oso merkatu ireki moduan eratu da hasieratik, zeren Europan finkatutako talde handiek munduko merkatura begiratzen baitute zuzenean. Hori ikusita, errazago ulertzen da “atal sozialaren” mendetasun izaera gordina, batez ere enpleguari dagokionez.

4. ENPLEGURAKO ESTRATEGIA BAT?

“Enpleguaren europar estrategia” 1997ko azaroan sortu zen, Luxenburgoko Kontseiluan. Estrategia horrek EBko “orientabideak” eta “enplegurako ekintza plan nazionalak” uztartzen ditu. Geroago, Lisboako 2000ko martxoaren goi bilerak helburu hau ezarri zuen: enplegu tasa %70era igotzea 2010ean. Metodoari dagokionez, politika nazionallean “koordinazio metodo irekia” hartu zuen, batez ere alor sozialean; jorratu ziren lehenengo bi gaiak erretiroa eta pobrezia-aren eta bazterketa sozialaren aurkako borroka izan ziren.

“Lisboako estrategia” horrek filosofia neoliberalera jotzen du modu garbiaman. Apaingarri hutsak baino ez diren helburuak alde batera uzten badira –adibidez: “lanaren kalitatea” eta “bazterketaren kontrako borroka”-, benetako helburu nagusiak soldatak murriztea, lan merkatua malgutzea eta langabeziaren kalte-ordaina gogortzea dira (“aktibazio” izena jarri zaio). Beraren eragilean arabera, horrelako helburuak abiatzeak enpleguaren egoeraren hobekuntza estrukturalaren eskutik joan beharko luke.

Europar eraikuntzak enpleguari buruzko itxaropen faltsuak ekarri izan ditu beti. 1992: europar ekonomia berria izeneko txosten batek iragarri zuen, 1988an, Merkatu Handia ezartzeak bidea eman go zuela bost milioi lanpostu sortzeko urte gutxi batzuen epean. Izatez, koiuntura onari esker sortu ziren, baina gero berehala suntsitu ziren, halako moldez non Merkatu Handiaren irekialdia, 1993ko urtarrilaren 1ean, langabezia tasaren gorakadarekin batera etorri zen.



Beraz, bada garaia europar eraikuntzak enpleguaren eremuan izan dituen orientazioen balantzea egiteko: oso negatiboa da. Gaur egun, 15 herrien Europar Batasunak 14 milioi langabe ditu, ofizialki zentsatuta, hau da, 80ko hamarkadaren amaierako langabezia tasa berdina (ia %8). Bestela esanda, jarduera ekonomikoaren fluktuazioek langabezia masiboaren iraupena estaltzen dute neolibera- lismoaren bi hamarkadetan.

Horrez gain, European gauzatutako enplegu politikek enpleguaren "kalitatea" hondatu dute modu orokorrean: enplegu prekarioen (lanaldi partzialekoak edo iraupen mugatukoak) lekuan enplegu estandarrek jartzen dira arian-arian. Soldata txikiko enpleguek pobrezia forma modernoak sortzen dituzte; azkenik, herri guztiek egin dituzte langabeen egoera okertu duten erreformak, edozein enplegu onartzera bultzatzeko. Era horretan, "enplegu egokiaren" definizioa txarrerako doitu da leku guztietan. Bestela esanda, bitarteko helburuak neurri handian lortu dira: malgutasuna igo da, soldaten jaitsiera finkatu egin da, eta "langabeziarako irekierak" murriztu dira, baina horrek ez du eraman langabezia modu iraunkorrean jaistera.

Politika horiek herriz herri gauzatzen dira, eta Europak koherentzia koadroaren funtzioa egiten die "koordinazio metodo irekiarekin", "jardunbide egokienak" lokalizatzea eta "orientabideak" defini- tzea bilatzen baitu. Iniziatiba konparatibo horrek eragin nabaria izan du eztabaida publikoan, "eredu sozialen" merezimendu konparatuei buruzko diskurtsoarekin.

Dena dela, horrek itzulinguru nabarmenak dakartza aldi berean. Lehenengoa da eredu nazionalen koherentzia ahaztea. Izan ere, malgutasunaren aldekoen joera success stories delakoan elementu onartezinak -onartezinak eurentzat- isiltzea da, hala nola gastu sozialen garrantzia. Benchmarking metodo horrek ez du kontuan hartzen herrien tamainak desberdinak direla, eta ahaztu egiten ditu herri bakoitzaren barnean erregioen artean dauden desberdintasun sakonak.

Estrategia hori ez da eraginkortasunik gabekoa soilik, baizik eta baita desegokia ere. Izan ere, euro- par dimentsioa bitarteko gisa soilik aplikatzen da, hots, gomendio liberalek politika nazionalen gai- nean duten pisua indartzeko bitarteko gisa. Alde horretatik, esan daiteke Lisboako estrategia ez dela kooperatiboa, zeren eredu sozialak lehian jartzeak merkatuetara dakarren lehia orokortua bikoizten baitu: zentzugabekeria ekonomiko bat da, ekonomia errearen kolpeekin talka egin ohi duena eta espazio sozial koherente baten eraikuntzaren exijentziei erantzuten ez diena.

Hortaz, "enpleguaren europar estrategiaren" azterketa sakonak galdera bat planteatzera darama, alegia, ea langabezia benetan murriztera eramango ote gaituen. Errealitatea da ez duela inolako helbururik ezarri alor horretan eta enplegu tasa soilik aipatzen duela -lan egiteko adina duten (15- 64 urte) biztanleen artean zenbat dauden enplegatuta-, 2010ean %70erino igo beharko litzatekeela esanez. Edonola ere, enplegu tasa handitzea eta langabezia jaitea ez da gauza bera. "Kalitatezko" lanpostuak sortzeko, bi gauza beharko liriteke: lanaldia modu orokorrean laburtzea eta gizartearentzat erabilgarriak diren enpleguak sortzea, hazkunde ez-produktibista baten euska- rri gisa. Garbi dago, jakina, hori ez dela planteatzen dena, baizik eta "lanera pertsona gehiago era- kartzea" eta "lan merkatuen malgutasuna handitzea", hau da, pertsonak ahal bezainbeste presio- natzea edozein motatako enplegua onar dezaten. Babes sozialeko sistemen "modernizazioarekin" ezarritako lotura eta "zahartze aktiboa sustatzeko" borondatea ez daude hor kasualitatez. Adibidez, lortzen baldin bada erretiro sistemak "modernizatzea", adineko langile gehiago egongo dira behar- tuta "modu aktiboan zahartzera". Beraz, enplegu tasa igoarzte "erreserbako armada industrial" modernoak soldata-kondizioan egiten duen presioa handitzearen antzekoa da. Suediaren kasua lagungarria da kontu ikonoklasta hori argitzeko, zeren herri horrek jadanik erdietsi baititu Lisboako strategiaren helburu guztiak, eta, beraz, Europako Batzordeak zoriondu egin beharko luke; honek, ordea, "lanerako pizgarriak" handitzera zuzendutako neurriak gomendatzen dio behin eta berriz, hau da, bestela esanda, langabeekin hain eskuzabal izan ez dadin eskatzen dio.

Horrenbestez, bada kontraesan handi bat helburuaren eta bitartekoen artean. Ezagutzaren ekonomiak –esamolde horrek zentzua baldin badu- prestakuntza mailaren igoera orokorra inplikatzeko du, eta baita enplegua balio erantsi handiko lanpostuei begira berrantolatzea ere, hau da, lanpostu kualifikatuei eta soldata handikoei begira. Baina helburu operazionala ikusita, hots, helburu hori enplegu tasa handitzea dela ikusita (ez langabezia tasa jaistea), badirudi kontua dela ahalik eta pertsona gehien enplegura sartzeko, baina beren exijentzia maila jaitsiz, bai enplegu horren “kalitateari” dagokionez eta bai lanpostuari atxikitako soldatari dagokionez.



Aldi berean bi erbiren atzetik korrika egiteko nahi horrek erakusten duena da edozein herri bi modu desberdin dituela enpleguak sortzeko, munduko merkatuari irekita dagoen testuinguru horretan. Lehenengoa da lehiakortasuna hobetzea, merkatu-zatiak irabazteko xedez. Bigarrena da zerbitzu babestuen sektorea enpleguen erreserba bezala erabiltzea, produktibitatearen igoera motelagoa dela oinarritzat hartuta. Bi estrategia horiek bateragarriak izan daitezkeen, horren baldintza da nolabaiteko deskonexioa egitea “babesik gabeko sektorearen” eta “sektore babestuaren” artean, bi ikuspuntutatik ikusita: produktibitatearen eta soldaten ikuspuntutetatik. Zerbitzuen sektoreko enpleguak sortzeak ez du kanpo lehiakortasuna zorpetu behar, eta ez du pisua izan behar errentagarritasunarentzat, soldaten parte balio erantsian kargatuz. Bi orientabideak adiskidetu ahal izateko bada ordaindu beharreko prezio bat, hots, lan merkatuaren segmentazioa, baina baita dualismo sozialaren hazkundera ere. Eta, zalantzarik gabe, lan merkatuen “erreformen” helburua horixe da: deskonexio hori ahalbidetzea.

Herri garaileen erreferentzia eredu sozial nazionalen egonkortasuna hobeto apurtzeko soilik erabiltzen da, eta, horrekin batera, malgutasuna enpleguak sortzeko bide erreala balitz bezala aurkezteko. Baina ebidentzia hori faltsua da. Hasteko, eta hau agerikoa izan beharko litzateke, enplegu gehiago sortzen dituzten herriak gehiago hazten direlako; hori arrazoi batzuegatik geratzen da, baina hazkundera ez du zerikusirik herri horien lan merkatuaren malgutasunarekin. Bigarrenik, beren langabezia tasa gehien murrizten duten herriak ez dira, ezinbestean, lanpostu gehien sortzen dituztenak. Frantzia sarritan erabiltzen den adibide bat jartzearen, Danimarkak erdira jaitsi du bere langabezia tasa hamar urtean; Frantzia, aldiz, maila berean jarraitu zuen garai horretan. Eta, hala eta guztiz ere, Frantziak garai horretan sortu dituen lanpostuen kopurua Danimarkakoa baino bi aldiz handiagoa izan da. Enpleguaren eta langabeziaren artean elementu batzuk tartekatzen dira, langabeak beren egoeratik ateratzera eramaten dituztenak: ezgaitasunak, gaixotasunak, erretiroak, lanaldi partzialean lan egitera behartutako pertsonak, edota, besterik gabe, langabezia bulegoan erregistratzeko desanimatzen direnak.

Bukatzeko, lan merkatuaren malgutasunaren eta prestazioen arteko lotura ezin du inork frogatu, ezta OCDEren moduko erakunde batek ere. Hala, 1999an, OCDEk hauxe aitortu behar izan zuen: “ezin izan dugu argitu zergatik herri batzuek lortzen duten araudi zorrotza eta langabezia tasa txikia uztartzea”. 2004an, berriz ere, hauxe esan zuen malgutasunaren eta langabeziaren arteko konbinazioen ebaluazioei buruz: “konbinazio horiek emaitza apalak lortzen dituzte, batzuetan kontraesankorrak, eta haien indarra ez dago beti segurtatuta”. Modu garbian adierazita, horrek esan nahi du ezin frogatu daitekeela “lan merkatuen erreforma estruktural” famatu horiek enpleguan eragin positiboa dutenik. Erreforma horiek –azken batean- ekartzen duten prekarizazioak, berriz, gazteak eta emazteak ukitzen ditu bereziki, eta, hortaz, “kolektibo horiek modu neurrigabeen pairatu litzakete horren ondorioak”. Hala, OCDEk hauxe ere aitortzen du: enplegu iraunkorren etaaldi baterako enpleguen arteko tratua desberdintasunak “lan merkatuaren dualtasuna handitu lezake”. Ezin liteke hobeto adierazi.

5. BESTELAKO EUROPA BATERAKO ELEMENTUAK

Horrenbestez, euroliberalismoaren balantze ekonomikoa eta -batez ere- soziala hondagarria da. Oraingo krisiak agerian uzten du hori, eta Konstituzioaren proiektuak Frantzia eta Herbehereetan izandako ezezkoa krisi horren ondorioa da, ez beraren arrazoiak. Hori horrela, ezinbestekoa da bide alternatiboak buruz hausnartzea, mugimendu sozialak Europa osoan egiten duen moduan.

Aldi berean, baina, beharrezkoa den erradikalismoaren maila neurtu behar da; galdetzekoa da ea alternatiba sozial-liberalak zentzurik ote duen. Azken batean, Amsterdamgo 1997ko Ituna sinatu zuten gobernu gehienak ezkertiarak ziren. Hala, garai hartan, ekonomia modu koordinatuan bizkortzera zuzendutako politika keynesiarrek aplikatuko zirela espero genezakeen, baina, agerikoa denez, hori ez da izan aukeratutako bidea. Horren arrazoi nagusia da ofentsiba neoliberalak oso bortitza dela, hainbestera non ez baitago lekurik konpromisoetarako: men egin behar dugu edo ofentsiba horri jo ta ke aurre egin.

GUTXIENKO SOLDATA ETA EUROPAKO KONBENTZIO KOLEKTIBOAK

Moneta bakarrak patronalaren ikuspuntutik dituen abantaila nagusietako bat da sistema sozialak lehian jartzen dituela. Soldaten arteko aldeak are gehiago erabiliko dira konkista sozialak murrizteko, inbertitzaileak erakartzeko xedez; aldi berean, deszentralizazioak areagotuko lirake europar esparruan bertan. Orokorrean, inbertitzaileak erakarriko dituzten elementuak hauexek izango lirake: karga fiskal edo sozial txikiak, edota exijentzia txikiak malgutasunaren bilaketari lotuta. Horrelako lehiaren bilakaera logikoa beheko mailarantz abiatzea eta hor lerrokatzea da, espiral atzerakoi baten bidez; hori harmonizazio prozesuaren kontrakoa da, argi eta garbi. Nolanahi ere, beren abantaila muturreraino eramanez, europar patronalak beharrezko bihurtzen du eman beharreko erantzunen europeizazioa. Erantzun horiek bi ideia hauen inguruan egituratu litezke: gutxieneko soldata eta lan kodearen harmonizazioa.

Gutxieneko soldata bateraturik egon ezean ez dago ez merkatu bateraturik ez moneta bateraturik; soldata horrek bermatu beharko luke ezein soldata ezin dela muga batetik behera jaitsi. Herri bakoitzerako egokitu beharko litzateke, baina marko bateratu batean definituta. Era horretan, gutxieneko soldatak eginkizun bikoitza izango luke, alegia, beheko muga bat ezarri soldatarentzat eta herri atzeratuenen soldatak gorantz bultzatu. Tresna hori osatzeko, gutxieneko soldatarekin batera, gutxieneko aurrerabide sozialeko sistema egituratu bat eratu beharko litzateke, gaur egun Europan sakabanatuta dauden pobrezia guneak ezabatzeko. Soldataren edo gutxieneko diru-sarreraren eremuko araudi kuantitatibo horiek Europako Merkatuek aurreratutako metodoaren arabera tratatu behar dira: errebindikatzen dena da per capita BPGaren %50aren adinako gutxieneko diru-sarrera bermatua. Hori "subsidiarotasun errebindikatiboaren" adibide on bat izango litzateke, hau da, errebindikazio homogeenak lantzea, baina Europar Batasuneko herri bakoitzaren garapen maila propioa kontuan hartuta.

Harmonizazio hori ahalbidetzeko, beharrezkoa izango litzateke soldaten aurrerapen bereiztua ere bermatzea, produktibitateak europar mailan dituen irabaziak nolabait berdintzeko. Arau hori da Alemaniako sindikatuek azpimarratzen zutena. Gisa horretako arrazoiak bat legedia sozial osora eraman liteke, neoliberalak amesten duten espiral atzerakoa eragozteko eta esparru sozial homogeen bat eraikitzeko.

BEHAR SOZIALAK ASETZEAREN ALDE

Zerbitzu publikoen eta babes sozialaren kontrako ofentsiba neoliberalak sistematikoa eta orokorra da, eta errealitate nazionalen dibertsitateak ez du estali behar batasun hori, ezta europar instituzioek

jokatzen duten zentralizazio rola ere. Azken batean, lortu nahi dena da behar sozial jakin batzuk merkataritzaren logikatik ateratzea eta behar horiek asetzera ahalbidetu zuten sozializazio eta mutualizazio prozesu guztiak atzera eramatea. Logika neoliberal horrek egiten duena da behar sozialak bi abiaduratan ase, edo, bestela esanda, egiten duena da desberdintasunak areagotu. Espazio integratu bat eraikitzearen kontra doa, hau da, zerbitzu publikoak europar mailan antolatzearen kontra. Zerbitzu publikoak erabilgarritasun kolektiboko ondasunak dira. Monopolio publikoen bidez kudeatu behar dira (monopolio publikoak ez dira ezinbestean estatalak izan behar), gizartearen beharrei erantzunez, ez etekinaren irizpideei erantzunez. Herritarren funtsezko beharrak asetzearekin zerkusua duten sektoreak kontrol publikoaren mende jarri behar dira, europar espazio osoan.

Gauza bera esan behar da babes sozialaren gainerako sistemei buruz: kasu guztietan, proiektu neoliberalaren xedea sistema horiek desegitea da, bi abiadurako gizarte bat ezartzeko. Eraldaketa sozialaren Europak, aldiz, funtsezko eskubideak -osasuna, atsedena eta erretiro- bermatu beharko litzuke, Europa mailako Gizarte Segurantzako sistema egituratu bat abiatuz herritar guztientzat, norberaren errenta maila zeinahi delarik ere. Europar hiritartasuna asmatu behar baldin bada, bermatzen dituen eskubideengatik definitu beharko litzateke.

OSOKO ENPLEGUAREN ALDE

Osoko enplegua lortzera zuzendutako europar politikak hiru osagai izan beharko litzuke: hazkunde ez-produktibista erregularra; lanaldiaren murrizketa koordinatua; prekaritatearen kontra borrokatzeko neurri koordinatuak.

Hazkunde iraunkorragora eta egonkorragora itzultzea ezinbesteko baldintza da enplegua bide onetik berriz orientatzeko. Horrek esan nahi du buelta eman behar zaiola finantzaren eta monetaren eremuko helburuen lehentasunari (defizit publikoa eta inflazioa). Hazkundeari eusteko modurik simpleena soldatak maila on batean egonkortzea da, zeren laurogeiko hamarkadaren hasieratik etengabe jaitsi baita, Europako batezbestekoan. Aurrekontu-politikak zikloen kontrako rola berreskuratu behar du -Egonkortasun Itunak ez dio orain hori egiten uzten-. Garraioen eta telekomunikazioen alorrean ekipamendu publikoei buruzko europar programak abiatzea lagungarria izan liteke -logika keynesiarrari eutsiz- barne merkatuaren dinamismoa eta erregularitasuna bultzatzeko. Gisa berean, beharrezkoa da barne lehiarako politikak apurtzea, zeren joera atzerakorrak sortzen baitituzte ia etengabe. Europar Batasunaren integrazioaren ondorio bat da gainerakoek bokale bihurtzen dela. Lehiaren politika eta soldatak murrizteko politika uztartzeak beherantz eramaten du barne merkata. Benetako koordinaziorik ez egotearen eraginez, euroaren eremua hazkunde ahul kronikoko eremu bihurtu da: maniobratzeko aukera izateko modu bakarra da barne merkatu dinamikoagoan berriz kontzentratzea. Bukatzeko, beharrak asetzeari lehentasuna emateak bestelako edukia eman-go lioke hazkunde horri, ihes-bide produktibistagoa apurtuz.

Orokorra, masiboa, derrigorrezkoa: horra hor Europako Batzordeak errefusatzeko dituen hiru adjektiboak, lanaldia laburtzeari dagokionez. Hala eta guztiz ere, horixe da langabeziaren igoera masiboari eman dakiokkeen erantzun arrazional bakarra, eta baita gizarte eraldatzeko prozesua abiatzeko palanka ere. Hortaz, patronalaren aldetik ezezko jarrerak piztea ez da batere harrigarria; harrigarria kontrakoa izango litzateke. Frantziako ezkerak, baina, patronal horren kontrako enfrentamendua saihestu nahi izan du, eta hori egitean izen ona kendu dio orientazio horri. Hori beste ebidentzia bat da. Dena dela, oztopo horiek ez gaituzte eraman behar bide hori baztertzea, zeren eta, gainera, bide horrek europar dimentsioa onartzen baitu argi eta gabi. Europar Batasuna botere eta dimentsioa nahikoak dituzten herriz osatutako multzo bat da, eta lanaldia modu masiboan laburtzeak arraste-efektu garrantzitsua izango luke, zeren langabezia eta diru-sarreraren prekaritatea murriztuko bailituzke, eta, beraz, gora eraman lezake ongizate kolektiboa. Horren kontrako argudio nagusia -lanaldia bere kabuz eta modu isolatuan laburtzen duen herri isolatu batek bere lehiakortasuna igo beharko lukeela dioten argudioa- desagertu egiten da, zeren neurri hori 15 herritara eramaten

baita, eta herri horiek elkarren artean gauzatzen dituzte truke komertzial gehienak. Eta soldata-par-tearen hazkundeak bidea emango luke lanaldiaren murrizketa koordinatu hori finantzatzeko, diru-sarrerera finantzarioen partearen kaltetan.

Lanaldia %10 murrizteak, soldata jaitsi gabe eta kontratazio proportzionalekin, Europako langabeziaren erdia kentzea ahalbidetuko luke; geratzen den langabezia, gainera, laster murriztu ahal izango litzateke lanaldia 32 orduraino laburtzen bada. Langabeziaren kontrako politiken artean, hauxe da modu iraunkorrean eraginkorra izan daitekeen bakarra. Gainera, badu abantaila handi bat, hots, kooperatiboa dela: helburua hobeto lortzen du herri askok aplikatzen duten neurrian; lehia sistematikoaren logikak, aldiz, auzokoei kalte eginez soilik funtziona dezake. Beraz, premiazkoa da helburu horri buruzko borroka koordinatuak hastea.

Osoko enplegura itzultzea enpleguaren kalitatea hobetuz egin behar da. Erabateko malgutasuna eta soldatako langileen estatusaren hobekuntza uztartzeko nahia –neoliberalak nahi duten moduan-guztiz kontraesankorra da. Prekarizazioa oinarritzat hartuta ezinezkoa da osoko enplegura itzultzea, eta prekaritatea jaisteko edozein formak ezingo luke ezer egin lan merkatu gainbeheratuaren testuinguruan. Horrenbestez, koordinazioaren helburua enpleguari buruzko europar arau sozialak izan behar dira. Europa maila oneko espazio sozial moduan eraiki behar da, eta horrek hiru proiektu nagusirekin du zerikusia.

Lehendabizikoa gizonen eta emazteen arteko berdintasunaren aldeko borroka da: tratu-berdintasunaren printzipioa europar lan Kodearen zirriborroaren osagaia izan behar da. Arreta berezia zuzendu behar zaio nahitaezko lanaldi partzialeko lanari. Fenomeno horrek hedadura desberdina du leku batzuetan eta besteetan, baina agertzen den lekuetan aurre egin behar zaio, hau da, lanaldi partzialean ari direnek eskubidea izan behar dute lanaldi osoko enpleguetara pasatzeko.

Bigarren proiektua prekaritatearena da. Europako herri bakoitzak enplegu forma atipikoak sortu ditu, bakoitzak bere irudimen nazionalaren arabera. Soldatako lan malgua lan independente bezala mozorrotzen da Erresuma Batuan, eta Espainiak iraupen oso laburreko kontratuak erabiltzen ditu. Frantzia, berriz, nabarmenki igo da behin-behineko kontratuen erabilera; gainera, gobernua ahalginak egin ditu lan kontratu malguagoak ezartzeko, baina mobilizazio masiboak piztu ditu horren kontra, hots, Lehen Enplegurako Kontratuaren kontra. Dibertsitate horretatik haratago, soldatako lanaren estatusa desegin nahi duen tresna horren kontra jo behar dugu. Horregatik, Europa sozialak arau behartzaileak ezarri beharko litzuke, zigorrak ere atxikita, lan prekarioaren erabilera penalizatzeko xedez.

Prekarietaterik eta langabeziarik gabeko gizarte libre bat lortzeko herritar gehienek duten nahiak benetako "erreforma estruktural" batera eraman beharko gintuzke, hots, soldatako lanaren estatus berria ekarri beharko luke, lan kontratuaren, diru-sarreraren eta eskubide sozialen iraunkortasuna bermatzeko.

Perspektiba demografikoak ikusita, badirudi datozen hamarkadetan gehiago joko dela immigranteen lana erabiltzera. Patronala bueltak ematen ari zaizkio gai horri eta irekiera kontrolatuaren aldeko iritzia ematen ari da; irekiera horrek bi erregistroren gainean funtzionatuko luke: alde batetik, kuota ezarriko lirateke enplegu kualifikatuagoentzat; lanpostu arrunten kasuan, aldiz, klandestinitatea –neurri desberdinetan- eta gehiegizko esplotazioa nagusiko lirateke. Immigrazioaz era horretan baliatzearen ondorioa hauxe izango litzateke, prozesua horrela planteatzen bada: soldatak eta baldintza sozialak beherantz bultzatzea. Galbide horretatik ez joateko, ezinbestekoa da immigrazio politika europar mailan definitzea, langile immigranteei langile nazionalen eskubide berdinak bermatzeko. Horixe da modu bakarra tokiko deszentralizazioak eta kontrolik gabeko lehia eragozteko.

FINANTZA-KAPITALA TASATZEA ETA KONTROLATZEA

Europako eredu kapitalistak, beraz, gero eta modu gordinagoan uztartzen ditu prekarietatea eta miseria –polo batean- etekinekin eta aberastasunarekin –bestean-. Beraren ikuspuntutik hori ez da ilogikoa, zeren aberatsen kontsumoak konpentsatzen baitu soldatako langileen kontsumo mailaren beherakada. Baina hori defendatzea gero eta zailagoa da. Kapitalei poliki-poliki segurtatu zaien osoko askatasunak ekonomiaren funtzionamendu kaotikoa ekarri du, eta egoera inoiz baino garbia- go ikusten da: aukera bat da agindu neoliberaleri men egitea, austeritateari bidea emanez, betirako eta mugarik gabe; bestea, berriz, behar sozialak asetzea erabakitzea da, eta horretarako beharrez- koa da ondasun sozialak bestelako modu batean banatzeko tresnak eskuratzea.

Ikuspuntu horretatik, finantza publikoen saneamendua aitzakia bat baino ez da, zeren ahazten baitu zein den zor publikoaren oinarria, hots, kapitalaren sarrerren gaineko presio fiskala jaitsi egin dela, halako moldez non Estatuak zorrak hartu behar izan dituzten errentadunekin, eta interes mardulak ordaindu behar izaten dizkiete urtero. Europa sozialerantz zuzendutako norabide-aldaketak erre- forma fiskal sakona ekarri behar du berekin; horren helburua da kontribuzioak hobeto banatzea eta Estatuaren baliabideak handitzea, helburu sozial jakin batzuk bete ahal izateko. Ezker liberalarenak ez bezala, gure proiektua da –argi eta garbi- “nahitaezko kenkari” horiek igotzea; izan ere, horren bidez neurtzen dena da gizarteak beretzat aukeratzen duen sozializazio maila. Gure ustez, behar sozialak asetzeak sozializazio maila hori handitzea eskatzen du, batez ere gutxieneko estandar sozial egokiak bermatzeko, lan-indarraren kudeaketaren gaineko kontrola segurtatzeko –enpre- san-, erretiroen bilakaera kudeatzeko, eta finantziazio soziala aberatsen gaineko zergaren bidez segurtatzeko, haiengana zuzendutako mailegu baten bidez segurtatu beharrean. Bi helburu horiek betetzea (justizia eta errenta handituak) bi neurri multzo handi planteatzen ditu.

Hasteko, ohiz kanpoko kenkari bat ezarri behar zaie ondareei; horren helburua da zor publikoaren zati nagusia kentzea, zeren iraganekeo opari fiskalen herentzia moduan betikotzeko joera baitu.

Diru-sarrera finantzarioen zergak egokitu behar dira, diru-sarrerak enpleguari eman beharreko lehenetsunaren arabera banatu daitezten. Europar zerga bateratu bat sortzea bidea emango luke fondo estrukturalak eskurtzeko, hots, babes sozialeko sistemak harmonizatzeko eta lanaldia labur- tzeko –Europa mailan- beharrezkoak diren fondo estrukturalak eskurtzeko.

Bukatzeko, beharrezkoa da kapitalen mugimendua kontrolatzea, finantza-inflazioaren disuasioa egiten duen legedia baten bitartez; ildo horretatik, etekinen gaineko zerga igo beharko litzateke, beminbertit- zen ez diren etekinei errekarua eginez eta dibidenduen konturako kenkaria eginez. “Tobin moduko zerga” bat ezarri behar da kapitalen epe laburreko mugimenduetan. Dena dela, zorrozt kontrolatu behar dena mugimendu horien guztien multzo osoa da, haien forma zeinahi delarik ere (deszentraliza- zioa, kapitalen irteera, eta abar.). Horixe da modu bakarra eraldaketa sozialaren esperientziak babes- teko, hots, aurrez aurre ezinbestean izango dituen errepresalia eta sabotaje neurrietatik babesteko.

ONDORIOA

Proposizio hauek koherenteak dira eta bestelako Europa bat definitzen dute, alegia, behar sozialak asetzea europar eraikuntzaren berezko helbu rutzat hartuko lukeen Europa bat. Oraingo europar poli- tiken kontra zuzentzen dira puntuz puntu, eta baita haien oinarrian dagoen eraikuntza metodoaren kon- tra ere, zeren aurrez aurre jarritako bi gizarte proiektu baitira. Nolanahi ere, proposizio hauek erradi- kalismo maila egokia ere definitzen dute, zeren proposatutakoa abian jartzeak sozio-liberalismoak ezin onar dezakeen enfrontamendu gradu bat baitakar. Proiektu alternatibo bat berriz fundatzeko mugimendu horretan jaio daiteke, azkenez, bizitzeko leku atsegina izan daitekeen Europa hori.



MALGUSEGURTASUNA ETA EUROPAKO ENPLEGU POLITIKA

MIKEL DE LA FUENTE

*Lanaren eta Gizarte Segurantzaren zuzenbideko irakaslea UPV-EHU-n
Lan Harremanetako Eskolako zuzendaria*

1. SARRERA: CORPORATE GOVERNANCEA ETA ENPLEGUA

1970etik aurrera, metaketa geldotzez batera, eta politika neoliberalen laguntzari esker, kapital finantzarioaren nagusitasuna inoizko mailarik handienera iritsi da kapitalismo industrialaren sorreraz geroztik. Corporate governancearen printzipioen hedapena edo legediaren eta jardunbide pribatuen arteko artikulazio berria –inbertitzaile anglosaxoiar instituzionalek bultzatuta- euskarritzat hartuta, errenten erregulazio berri bat nagusitu da nazioartean; erregulazio berri horretan, kapitalaren/diruaren iturri garrantzitsuenak sare baten erdian daude kokatuta, eta bertara iristen diren baliabideak munduko beste leku batzuetan ekoiztutako produktuak dira gero eta neurri handiagoan (Farnetti, 1996). Corporate governancea dela medio, enpresen eginkizunak helburu bakarra du orain: ondasunak ekoizteko jarduna hedatzearen bidez mozkinak eskuratzea eta burtsa-balioa (shareholder value) handitzea (Nikonoff, 1998).

Errentagarritasunaren irizpide berriak “akzioen balioan” oinarritzen dira, eta haien helburua da ekoizpen prozesuan sortutako balioaren banaketa aldatzea, lanaren kaltetan eta kapitalaren eta beraren jabearen (akzioduna) mesederako. Globalizazio finantzarioaren oraingo fasearen ezaugarrien artean, azpimarratzekoa da fondo jakin bazuen igoera: soldatako langileen pentsioetara zuzendutako aurrezkiak kudeatzen dituzten pentsio fondoak, aurrezki kolektiboak kudeatzen dituzten fondoak (mutual funds) eta arrisku-fondo espekulatiboak (hedge funds). Herri anglosaxoiarretan, enpresen kapitalaren gainean duten kontrola izugarri hazi da, baina Europako gainerako herri gehienek ere bide hori hartu dute, bakoitzak bere erritmoan. Akzioen jabetzaren sakabanaketak helburu zehatz bat du zentro finantzario anglosaxoiarretan, beste batzuen artean, hots, Europako eta Japoniako enpresa handietako administrazio kontseiluetan eliteek duten kontrola haustea, inbertitzaile instituzionalek enpresa horietako botere nuklearraz jabetzea lortu ez duten guneeetan. Hau da, shareholder valuea lehia baten adierazpide bat da: talde ekonomiko eta finantzario handien artekoa, eta gizarte eta lan ereduaren artekoa. Garbi dago, jakina, beraren helburua ez dela, inola ere ez, botere ekonomikoa gizarte zibilean modu demokratikoagoan banatzea, azterlan batzuek hori esaten badute ere (Fernández Steinko, 2004).

Akziodun nagusi bihurtzen diren neurrian, inbertitzaile instituzionalek –batez ere pentsio fondoek kudeaketarako irizpide berriak ezarri dituzte. Irizpide horiek kapitalaren jabeentzat dituzten abantaila hauexek dira, modu laburrean azalduta (Serfati, 2000):

- Instituzio finantzario handiek talde industrialen gainean duten kontrolak botere kontzentratua ematen die kapitalaren jabeen, eta horrek bidea ematen die gero eta zati handiagoa eskuratzeko ekoiztutako balioetik;

- enpresaren gobernuak forma nahiko homogeenak aplikatzen ditu kudeaketa finantzarioaren alorrean, eta horrek kanpoko estutze-forma ematen die kapitalen errentagarritasun arauari, hau da, arau horiek kanpotik estutzen edo mugatzen dituzte bai enpresa bera eta bai beraren barneko harreman sozialak;

- kudeaketa arau horiek munduko eskalara hedatzearen helburua hauxe da: kapitala emantzipatzea ekoizpen kostuen alorrean dauden desberdintasun nazionaletatik; era horretan, nazioak etengabe-ko lehia jartzen ditu, eta beherantz presionatzen ditu kostuak, beheko mailetan lerrokatzeko xedez.

Printzipala (akziodunak) eta agente bat (enpresa-kudeatzailea) aurrez aurre jartzen dituen ustezko gatazka konpontzeko, kudeatzaileengana zuzendutako orientabide jakin bat garatu da, haien estrategia "akzio-balioen sorreran" oinarritu dezaten, pizgarri finantzario egokien bidez (hala nola stock options deritzanak). Era horretan, akziodunak eta exekutiboak elkartzeko fronte bateratu bat proposatzen da, benetako aurkari aurre egiteko. Aurkari horiek "Eastern Air Lines-eko pilotu grebalariak dira, ... (e)ko meatzariak...", eta New Yorkeko telefonoen langileak, oso pozik baitaude beren nagusiaren antolaketa hondatzeaz, beren interesen alde jokatzeko" (M.C. Jensen, "agentziaren" teorialaria, Serfatik aipatua, 2000).

Soldatako langileek eta sindikatuak boterea galdu dute modu nabarian. Oro har, langileen zuzeneko soldatak finkotasuna galtzen du, zeren gero eta lotuago baitago langilearen edo enpresaren errendimendurekin, soldatei buruzko politika berrien eraginez: soldata indibidualizatzea edo "soldatari buruz kontratua dauden baldintzak birmoldatzea), edota "mozkinetan parte hartzeko" politika. Enpresatik "externalizatutako" langileen kasuan bezala, joera da "arisku komertzial" osoo haien bizkarrean uztea: eskarien kopuruak behera egiten badu, tarifak murrizten dira edo sasi-mendekoa den langilearekin dagoen kontratua eten egiten da. Soldatako langileen kontrako ofentsiba errentagarritasunaren arau finantzarioetan oinarritzen da, eta beraren bitartez modu larrian hausten dira nortasun kolektiboak, zeren eta, betidanik, nortasun horiek iraunkortasunean eta egonkortasunean oinarritu baitira; gainera, indibidualismoa bultzatzen du modu nabarmenean soldatako langileen artean. Shareholder valuearen estrategiak eragotzi egiten ditu lana pertsonen neurria antolatzeko ahaleginak, zeren kate-lanari heltzen baitio berriro, eta taldekako lana konbinatzen du taylorismo estandarizatuarekin (Bischoff, 2002). Lanaren "bimerkantilizazio" horrek antzinako formetara eramaten gaitu atzera, hau da, kapitalismoaren hasierako ohiko moldeetara, eta hori kontraesankorra da langile kualifikatuak eta ez-kualifikatuak banatzen dituen marra gainditzearekin, marra hori gainditu egin dela esaten bada ere¹. Merkatu finantzarioak kontrarreforma sozialaren tresna gisa duten rola ez da agertzen inbertitzaile instituzionalen zuzeneko presentzia duten enpresetan soilik; izan ere, rol hori lehia globalaren, burtsaren, estandarren eta benchmarken (Huffschmid, 2002) –adibidez: kapital propioen errendimendu tasa (return on equity edo ROE)- bidez ere orokortzen da.

Corporate governancearen teorialari batek (Cohen, 2002) bi eredu bereizten ditu enpresen antolaketaren eta kontrolaren alorrean, alegia, bi "kapitalismo mota" islatzen dituzten bi eredu. Lehenengo mota izango litzateke akziodunek enpresaren gainean ezartzen duten kontrola, hots, kontrol konzentratua. Bigarren mota izango litzateke merkatuek ezartzen duten kontrola –sistema multipolarra. Estatu Batuek eta Erresuma Batua dira merkaturen bidez segurtatzen den kontrolaren adierazle nagusiak. Horren ezaugarri nagusiak hauexek dira: kapitalaren irekiera eta EEPen kontrako neurriak (EEP = Erosteke Eskaintza Publikoa [OPA]); neurri horien helburua da akziodunen sakabanaketari eustea eta akziodun taldeen arteko itunak sortzera behartzea, kontrola ezartzeko xedez. Alemaniak jarraitzen du izaten akziodun blokeen bidez ezarritako kontrolaren adibide garbiena ("sistema konzentratua"). Merkaturen bidezko kontrolak azpimarratzen du inbertitzaileek ordainsari maila jakin bat exijitzen dutela, hots, gero eta hobe izan behar duen errendimendu monetarioarekin bat etorri behar duen ordainsari maila bat. Normalean, azpimarratzen da merkatuaren bidezko kontrol horrek "epe laburreko izaera" determinatzen duela, hau da, berebiziko sentikortasuna ROEaren aurrean eta berehalako errendimendu monetarioaren aurrean.

¹ COUTROTEk (1999) erakutsi du, Frantziako errealitateari buruzko azterlan zabal bat oinarritzat hartuta, kapitalismo berriak kualifikazio maila handiko langile sektore bat garatzen duela, eta langile horien kopurua arin hazten dela. Aldi berean, baina, sortzen diren lanpostu gehienak kualifikazio maila txikikoak dira. Enpresek modu selektiboan erabiltzen dituzte kapitalizatzen diren pentsio pribatuak soldatako langileen lehen sektorea fidelizatzen.

%15eko ROE lortzeko helburua onarpen orokorreko marka bilakatu da, eta, hortaz, merkatuek exijitzen duten errentagarritasun maila horretara iristen ez diren enpresek plantilla murrizteko neurri egokiak hartu beharko dituzte –donwnsizing neurriak– helburu hori lortzeko. Mozkin tasa hori aparteko testuinguru batean gertatu zen, laurogeita hamarreko hamarkadaren lehenengo erdian; izan ere, interes tasen jaitsierak karga finantzarioak murriztu zituen aldi horretan, eta berari esker %8ko mozkin tasak eskuratu ziren, gutxi gorabehera. Testuinguru horretatik kanpo, %15eko errendimenduen helburua eutsiezina da eta funtsezko kontraesan bat planteatzen du (Fayolle, 2002): maila normaletik gorako mozkin tasaren helburuak orekarik gabeko mozkin exijentzia ekartzen die enpresei, ustez erregularra den hazkunde erregimen baten testuinguruan. Enpresa monopolista batzuek luzaro eutsi diezaioke helburu horri; enpresa gehientzat, aldiz, abantaila horiek iragan-korrek soilik izan daitezke, eta, hortaz, ezegonkortasuna corporate governancearen funtsezko ezau-garri bihurtzen da. Horrenbestearinoko errentagarritasunaren ilusioa mantentzeko modu bakarra ingeniari-tza finantzarioaren tresnak erabiltzea da, eta baita ezkutuko gainbalioak gauzatzea eta hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspen baikorregiak izatea ere (Plihon, 2003).

Talde industrialak ebaluazio finantzarioaren mende jartzeak talde horiek zeharkatzen dituzten bi logiken arteko tentsioa bultzatzen du: alde batetik, ondasun materialen sorrerari dagokionez, oso faktore garrantzitsua dira; bestetik, komunitate finantzarioak exijitzen dituen sarrera-fluxuen elikatze-faktore nagusia direnez, arriskuak murrizteko politikak aplikatzera daude behartuta, enpresa-mozkinak ahalik eta gehien handitzeko xedez, eta hori egitean aurre egiten diote arriskuaren eta errentagarritasunaren arteko lotura tradizionalari (Roturier eta Serfati, 2002). Logika finantzarioak eta industrialak integratzeko corporate governanceak ekarri dituen forma berriak oso lagungarriak izan dira akziodunen boterea indartzeko. Hala, enpresetako zuzendariak behartuta daude enpresak irizpide bakar batez kudeatzera, alegia, haien epe laburreko errendimendu finantzarioa ahalik eta gehien handitzeko irizpidez kudeatzera, enpresen mozkin tasak modu sistematikoan konparatuz, eta horrek igoarazi du langileen soldata eta lan baldintzak okertzeko arriskua.

Beste alde batetik, ROEari lotutako helburuak beste ondorio bat ekarri du berekin ezinbestean, hots, kontabilitatearen faltsifikazioak, paradisu fiskalak eta azken urteotan ugaldutako diren beste iruzur-jokabide batzuk: Enron eta Worldcom “kasuak” Estatu Batuetan, Vivendi Frantziar Estatuan, Parmalat Italian, Adecco Suitzan, Mannesman Alemanian eta Gescartera Espainiar Estatuan ez dira eskrupulu gutxiko enpresari bakar batzuek eragindako kasuak, baizik eta akziodunentzako aparteko mozkinak lortzeko zuzendutako lasterketa horren ondorioa, zeren mozkin horiek kontuak faltsutzearen bidez soilik lortu ahal baitira. Ustelkeriazko fenomeno horiek ikusita, gizarteak kontzientzia hartu du enpresetako gobernu modu eraginkorrean arautzeko beharraz, eta hori funtzionala izango litzateke sistemarentzat, zeren Estatuari arautze-zeregin berriak ematen baitizkio; beste alde batetik, baina, elite neoliberalen ustearen kontra egiten du talka, elite horrek kapitalismoaren autoerregulazio ahalmenean sinesten baitu.

Oraingo bilakaeraren ondorioa da dibisen mugimendu espekulatiboak pairatzen dituzten ekoizpen sistemak desegonkortzen direla, eta horren eraginez gora egiten duela langabezia; azken urteotan ikusi dugunez, horrek arazo sozial oso larriak sortu ditu Latinoamerikako eta Asiako herri batzuetan, baina iraganean Europar Batasuna ere ukitu du. Lanaren eta gizarte babesaren erregulazioa, funtsean alor estatalean mantentzen dena, modu instrumentalean hasi da erabiltzen politika ekonomikoaren zerbitzuan. Izan ere, lan babesa eta gastu sozialak murrizteko helburuak eta bitartekoak nahitaezkoztat hartzen dira, nonbait, globalizazioaren eraginez.

Enpresa eredu berria ezin izango zen garatu testuinguru berri bat egon ezean; Agiletak (1998) “ondare-kapitalismo” deitu dio testuinguru horri. Nolanahi ere, enpresen akzio gehienak soldatako langileen esku egon arren, pentsio fondoek bitartez, horiek ez du esan nahi langileek botere esanguratsua duten kapitalaren gainean, eta ez dituzte kontsultatzen egindako inbertsioen inguruan. Agliettaren iritziz, beharrezkoa da onartzea merkatu finantzarioek ekonomia globalaren bidean duten funtsezko garrantzia, eta, hala, haien baretik demokratizatu beharko lirateke; horretarako, oso garrantzitsua izango li-

tzateke langile-mugimenduak inbertitzaile instituzionalen gainean duen eragina, batez ere pentsio fondoen kasuan. Dena dela, dioenez (Nikonoff, 1998), kapitalismo hori ez da ondare-kapitalismoa, fikziozko kapitalismo hutsa baizik. Botere finantzariak botere mota berri bezala izan duen gorakadak interes-eramaile zen kapital finantzarria aldatu eta jabetza-eskubideen eramaile den kapital finantzario bihurtu du; era horretan, jabetza-eskubideak aldatu egin dira, XX. mendearen hasieran gertatu zen aldaketa –akzioen bidezko sozietateak eratzea- luzatuz (Duménil eta Lévy, 2000).



2. ENPLEGUAREN EUROPAR ESTRATEGIA

Laurogeiko hamarkadan langabeziak Europar izandako hazkundera gorabehera, enplegua ez zen europar kezka bezala agertu 1993ko abendura arte, hau da, Hazkunde, Lehiakortasun eta Enpleguaren Liburu Zuria (Delors Txostena) Bruselako Kontseiluan aurkeztu zen arte. Liburu Zuriak defizit publikoak murrizteko politikekin jarraitzea proposatzen zuen, politika monetario egonkorrekin batera, inflazio txikia lortzeko xedez. Enpleguaren alor espezifikoari dagokionez, lehentasunen artean hauexek agertzen ziren: etengabeko hezkuntzaren eta prestakuntzaren aldeko apustua; barneko eta kanpoko malgutasuna handitzea; kualifikazio maila txikiko lanaren kostu erlatiboa jaitea; enplegu politikak berriztatzea; eta "enplegu-sorgune berriak" sustatzea, zerbitzu hurbilen alorrean hiru milioi lanpostu berri lortu ahal izateko; bizi baldintzak hobetzea; eta ingurumena babestea.

Hala eta guztiz ere, orientabideak eta lehentasunak EB mailan definitzen badira ere, politika estrukturalak eta sozialak Estatuaren eskumenen alorrekoak dira, eta politika makroekonomikoetatik bereiztuta daude.

Amsterdamgo Itunak enpleguari buruzko titulu espezifiko bat erantsi zuen Europako Erkidegoen Itunean (TCE) (VIII. Titulua), eta horren bidez modu formalean bereiztu zuen enplegu politika politika sozialetik (XI. Titulua politika sozialari buruzkoa da). TCEaren 125. artikulua berriak "lan-indar kualifikatu, prestatu eta egokigarriarekin" lotzen du enplegurako estrategia, eta baita "aldaketa ekonomikoari erantzuteko gaitasuna duten lan merkatuekin" ere, hau da, lan malgutasunaren aldeko dei irekia da. 126.2. artikulua dioenez, "EBko Estatuak interes komuneko gaitzat hartuko dute enpleguaren sustapena".

Lisboako Kontseiluak -2000ko Martxoan- enplegu beteko perspektiba itxuratu zuen, okupazio tasa %70ra iristea xedez hartuta, %60 emakumeen kasuan eta %50 adineko langileen artean; halaber, lehenengo bi taldeentzat bitarteko helburuak ere ezarri ziren 2005rako: %67 eta %57, hurrenez hurren. 2006ko amaierako egoera ikusita, helburu horiek ez dira batere sinesgarriak Europako Estatu gehientzat, zeren 5 Estatu soilik iritsi baitira %70ko tasara 15 eta 64 urteen arteko biztanleentzat (Danimarka, Holanda, Suedia, Erresuma Batua eta Austria). Espainiar Estatuan, tasa horiek %64,8, %53,2 eta %44,1 ziren, hurrenez hurren. Eurostatek 2007ko uztailaren 20an argitaratu zuen txosten baten arabera, EB-27ren enplegu tasa orokorra %64,4 zen, azken urtean %1 igo eta gero. Emakumeen enplegu tasa %57,2 zen, 2005ekoa baino %1,2 handiagoa. 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen enplegu tasa %43,5 zen (%41,7 euro zonan), baina oraindik ere oso urrun dago Lisboan proposatutako %50etik. EBrekin lehiatzen diren beste bi ekonomia handiek enplegu tasa hauek zituzten garai horretan: Estatu Batuek %72 eta Japoniak %70.

Enpleguaren Europar Estrategiaren (EEE) arazoak helburu orokorretatik "lehentasunetara" pasatzean sortu ziren. Alde batetik, guztiz onargarriak diren lehentasunak planteatzen dituzten proposamenek ez dute inongo izaera behartzailearik, eta, beraz, ez dira derrigor bete beharrekoak; adibidez: "gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna" eta "pertsonek baztertuak laguntzea eta lan merkatuan pairatzen duten diskriminazioaren kontra borrokatzea". Beste alde batetik, lanaldia laburtzea ez da inon ere planteatzen enplegu tasa handiagoak lortzeko tresna gisa.

“Lanaren errentagarritasuna” enplegua bultzatzeko tresnatzat hartzen duen formulazioak ikusmolde bat du bere abiapuntuan, alegia, gutxieneko soldaten eta prestazio sozialen arteko diferentzia txikia “enpleguarentzako tranpa” bat dela dioen ikusmoldea; beraz, formulazio horren arabera, tranpa hori sistema fiskalak eta babes sozialeko sistemak berrikustearen bitartez gainditu behar da, lan merkatuan sartzeko eta bertan irauteko erabakia bultzatzeko xedez. Beste neurri batzuen artean, formulazio horrek proposatzen du langabezia prestazioak murriztea, nahiz eta egokiena –esaten ez dena- hauxe izango litzatekeen: gutxieneko soldata handiagoak bermatzen dituen enplegu arau bat ezartzea. “Lan merkatuan egokitzeko gaitasuna” sustatzeak gai bat planteatzen du, hots, ea langabeziaren arazoak lan-indarraren egokitzapen kualitatiboaren gabezien ondorio ote diren. Iritzi hori formulatzera iritsi gabe, Batzordearen dokumentuek hauxe islatzen dute: langilea baliagarria baldin bada enplegurako, lan eskariren bat aurkituko du. Era horretan, langabeziaren arrisku indibiduala desplazatu egiten da –arrisku hori handiagoa da langileak prestakuntza txikiagoa duenean-, langabezia kolektibora pasatuz; alderdi horretatik ikusita, prestakuntza maila handiago izateak... langabeen kualifikazio handiagoa ekarriko du berekin. Izatez, Europako zenbait herritan abiatutako erreformak ildo horretatik doaz: Ingalaterra, Frantzia (Sarkozyren hauteskunde kanpaina), langabeziaren espainiar erreforma 2001-2002.

Badira zenbait elementu, EBko Estatuetak ezaugarriak eta enplegu-markak hurbiltzeko aukera murrizten dituztenak, hala nola enplegu politika estatalen dibertsitatea, haien izaera estatalaren iraupena, enpleguaren politika politika makroekonomikoetatik² praktikan bereiztea, enplegu betea sustatzeko politikaren oinarriak kontuan hartu gabe –nahiz eta enplegu betea sustatzeko estrategia bateragarria izan omen behar den “EBko Estaturen eta Erkidegoaren politika ekonomikoen orientabide orokorrekin”-, eta Europa mailako koordinazioaren ahulezia.

EEEaren balorapena ezin egin daiteke EBko politika ekonomiko eta sozial orokorretik kanpo, zeren politika ekonomikoaren alderdi batzuek ondorio garrantzitsuagoak baitituzte enpleguan enpleguaren politikak berak baino. Hala, Europako Banku Zentralaren moneta indartsuko politikak Europako enpleguan duen eragina –negatiboa- handiagoa da enpleguari buruzko politika estatalek baino –politika horiek Erkidego mailara eramane zituen gero Amsterdamgo Itunak-. Gainera, lan merkatuaren erreformen alderdi nagusiek, hala nola soldatek eta erregulazioaren malgutasunak, arreta handiagoa jasotzen dute Politika Ekonomikoaren Orientabide Nagusietan (PEON) Enpleguaren Europar Estrategian baino (De la Porte eta Pochet, 2004). FAYOLLEk (2004) dioenez, enplegua galtzeko arriskua soldata txikiko langileengan dago kontzentratuta. Nahiz eta soldata maila egokia izatea kalitate irizpideetako bat den, Europar Batzordeak enpleguari buruz urtero egiten dituen Txostenen arabera, Europar Batasunak ez du eskumenik ordainsarien alorrean; hori horrela izan arren, PEONek gomendio zorrotzak egiten dituzte produktibitatearen irabaziak soldatetan gehiago islatzearen aldeko errebindikazioak ez onartzeko.

Beste alde batetik, enpleguaren europar politikak oso baliabide finantzario txikiak ditu, hau da, egitura-fondoan zati bat, batez ere Europako Gizarte Fonda. Baliabideen aldetik dagoen gabezia horretatik ondorioztatzen da enplegu politiken bilakaera kualitatiboa azpimarratzeko joera (gastuak aktibatzea eta ebaluatzea). Zuzentarauek balio adierazgarria baino ez dute, eta Enplegu Plan

²EBko politikaren dimentsio ekonomikoaren eta sozialaren arteko deskonexioa agerian geratzen da “Sapir Txostenean” - An Agenda for a growing Europe. Making the EU Economic System Deliver, Report of an Independent High-Level Study Group established on the initiative of the President of the European Commission (2003ko Uztaila)- eta “Wim Kok Txostenean”, enpleguari buruzko Task-forcerena (KOK, 2003): Jobs, Jobs, Jobs (2003ko azaroa). Azken horrek EEEaren eguneratze boluntarista bat proposatzen du, jarrera neoliberalen eta trantsizio profesionalak segurtatzearrekin gehiago konprometitzen diren beste jarrera batzuen artean mugitzen dena (adibidez, jarrera neoliberalerik lotuta, hauxe dio: “lanaldiaren malgutasuna, langileen prestakuntza eta horrelako neurriak beren mugara iritsi direnean, enplegatzaileek aukera izan behar dute beren lan-indarra egokitzeko, kontratua etetearen bidez, aurretik abisatu gabe eta gehiegizko kosturik gabe). Sapir Txostenak dio Estatuak ez dutela eskumen askorik konpartitu nahi Erkidegoko instituzioekin, eta horiek ez dutela ez aginterik ez eskumenak behar den bezala betetzeko baliabiderik; horregatik, gomendatzen du Erkidegoaren aginpidepean dauden gaiak murriztea, enplegua eta gizarte kohesioa Erkidegoaren dimentsiotik kanpo utzita. Enplegua eta gizarte kohesioa politika makroekonomiko egokiaren ondorioa izango lirateke, eta hazkunderaren onurak bidezko moduan banatzeko ardura EBko Estatu bakoitzaren ardura izango litzateke.

Nazionalen inguruan Batzordeak egiten duen azterketak ez du inolako zehapenik aurreikusten plan horietan ezarritakoa ez betetzegatik; Egonkortasun Planaren baitan koordinatutako aurrekontu- eta moneta-politiken kasuan, aldiz, kontrakoa gertazen da³. Gainera, enplegu politikak politika ekonomiko eta monetarioaren mende jartzeak murriztu egiten du haien eraginkortasuna.



3. ENPLEGUAREN EUROPAR ESTRATEGIAREN HELBURUA: ENPLEGU TASAK HANDITzea

Edonola ere, EEEdaren benetako helburua ez da langabezia maila murriztea, enplegu tasa handitzea baino. EB obsesionatuta dago zahartze demografikoarekin, zeren horrek nolabaiteko eskasia ekar baitezake soldatako langileen alorrean, eta, beraz, enpresarien eta langileen arteko indar erlazioa alda lezake. Hori saihestu nahirik, asmoa da pertsonen fluxu etengabea sortzea lan merkatuan, hiru helburu hauek lortzeko:

- Lehenik, pertsona langabeei dagokienez, kalte-ordaina murriztuko litzateke, edozein lanpostu onartu behar izan dezaten; neurri hori Espainiar Estatuan aplikatu zen 1992-1993 garaian: langabeziari zegokion kalte-ordainaren ehunekoak murriztu ziren, eta kotizazioen eta prestazioen iraupenaren arteko erlazioa estutu zen; 1994an, enpresei aukera eskaini zitzaizen tramitazio soldaten ordainketa murrizteko, kaleratze egunaren eta adiskidetze administratiboaren egunaren arteko aldia soilik ordaintzeko aukera emanez, adiskidetzearen osteko 48 orduetan diru hori Gizarte Epaitegietan gordailuan utzita. Horren ondorioa da langabeari dagozkion langabezia-prestazioak arinago agortzen direla; neurri hori 2002ko erreforman finkatu da, zeren tramitazio soldata horiek ia desagerrarazi baititu.

- Bigarrenik, emakumeei dagokienez: haien enpleguaren igoera, neurri handi batean, ezarritako lanaldi partzialeko lana garatzearen bidez gertatu da.

- Hirugarrenik, adineko langileei dagokienez, denbora luzeagoaz lan egin beharko dute haien pensioetan jaitziera gogorrik ez izateko. Adin-tarte horretako biztanleriaren kopuruak igoera mardula izango du datozen urteotan⁴, eta modu masiboan jo du erretiro aurreratura eta ezintasun-pensioetara. Pensio egoki eta iraunkorrei buruz Batzordeak eta Kontseiluak 2003an argitaratu zuten txosten bateratuari erantzunez, Babes Sozialaren Batzordeak txosten bat prestatu zuen bizitza aktiboaren iraupena luzatzeko hartu beharreko babes sozialeko neurriei buruz; neurri horiek alderdi hauek ukitzen dituzte: langabezia, ezintasun eta biziraupen prestazioak, pensio publikoak (eta, horien barnean, gutxieneko pensioak) eta pribatuak, eta asistentziazko prestazioak. EBko kide diren Estatuak zuzentzen zaizkien checklisten (galdetegiak) orientabide nagusia da langile helduak presionatzea enpleguan jarraitu dezaten; horretarako, prestazioak lortzeko baldintzak okertzen dira eta haien babes-intentsitatea murrizten da.

Adineko langileen aktibitate tasak oso txikiak dira, batez ere adinari osasun egora txarra gehitzen zaionean⁵, eta hori nolabait konpentsatzen duen faktore bakarra emakumeen lan aktibitatearen igo-

³ Orain dela urte batzuk, GOPEek ohartarazpen bat egin zioten Irlandari inflazio handia izategatik, enpleguaren alorrean lortutako emaitza onak ahaztuz.

⁴ EB-25ean, ehuneko hori %10 izango da 2003an, eta %18ra iritsiko da 2050ean; igoera bereziki handia izango da Alemanian (%11tik %20ra) Austrian, Espainiar Estatuan, Italian eta Irlandan (%9tik %18ra)(CARONE, 2005).

⁵ Share 2004 inkestan oinarrituta egindako azterlan baten arabera, 50 urtetik gorako pertsonen enplegu tasa askoz ere txikiagoa da gaixotasun bat dutela adierazten dutenean, edo haien eguneroko jarduerak modu larrian mugatuta daudela adierazten dutenean. Eurostaten 2006ko azaroaren txosten baten arabera, adin-tarte horretako aktibitateerik ezaren tasa %45 da gizonentzat eta %64 emakumeentzat.

era da. Adin-tarte horretako langileek 1980eko hamarkadaren hasieratik izan duten aktibitate tasa motela politika jakin baten ondorioa da, hots, langileak lan merkatutik erretiratzeko politikaren ondorioa; horren arrazoia izan zen langabezia masiboak sortu zezakeen gatazka soziala saihestea. Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdian, adin-tarte horretako pertsonen aktibitate tasa %30 zen Europar Batasunean; Estatu Batuetan, berriz, %51 zen, eta Japonian %71. Geroago, tasa horrek gora egin du, baina, adierazi dugunez, konparatiboki txikia izaten jarraitzen du⁶. Biztanle talde horren langabezia tasa 25-54 urte bitarteko biztanleena baino txikiagoa da, zeren langile asko lan merkatutik irten eta aktibitate gabeko egoerara pasatu baitira behin betirako. Iraupen luzeko langabeziak, aldiz, pisu handiagoa du adin-tarte horretan.

Dena dela, murrizteko joera badu ere, 55-64 adin-tarteko enplegu tasen sakabanaketa enplegu tasa orokorarena baino handiagoa da. Orobat, emakumeen eta gizonen arteko enplegu tasari dagokionez, ikus daiteke 25-44 adin-tartean gertatzen den parekatzea ez dela gertatzen 55 urtetik gorako kolektiboan; izan ere, emakumeek askoz ere ehuneko txikiagoa dute talde horretan, eta, gainera, alde hori ez da ia txikiago azken 12 urteotan (BOSCH eta SCHIEF, 2006); diferentziak handiagoak dira emakumeen enplegua beranduago garatu den Estatuetan, eta Estatu horietan maizago gertatzen da emakumeek lan merkatua abandonatzea. Oro har, datu horiek ikusita, eta nazioen arteko desberdintasunak nabariak izanik, esan daiteke adineko langileek nolabaiteko bazterketa pairatzen dutela lan merkatuan; haien arazo nagusia da enplegua mantentzea edo enplegura iristea. Talde horren bamean, lanaren nekagarritasunaren aldetik dauden desberdintasunak diferentzia handiak sortzen dituzte bizi-itxaropenean, hainbestearino non aldea 7 urtekoa izan daitekeen esku-langileen eta zuzendaritzako langileen artean. Nekagarritasunaren edo lan baldintzen gogortasunaren aldetik dauden desberdintasun horien beste eragin bat da pertsonal kualifikatuak denbora luzeagoz irauten duela enpleguan; esku-langileek, aldiz, gutxiago irauten dute, zeren haien osasuna, oro har, hondatuago baitago: Alemanian, 2001ean, meatzarien %98 eta igeltseroen %53 erretiro aurreratura joan ziren ezintasunaren eraginez; medikuen kasuan, berriz, %6k soilik hartu zuten erretiro aurreratua arrazo horregatik. Ezintasun pentsio duinak eskuratzeko aukera konplikatuagoa da, berez, erretiro aurreratuko prestaziorik ez badago, eta lan merkatutik lehenago erretiratzeak are gehiago murrizten ditu pentsio horiek.

Batzordeak eta Kontseiluak elkarrekin batera egin eta Bartzelonako Kontseiluan aurkeztu zuten txostenean –“Biztanleria aktiboaren tasa handitzea eta zahartze aktiboaren sustatzea”- hauxe proposatzen zen: lana uzteko batezbesteko adina bost urtez luzatzea EBren alorrean. Neurri espezifiko gisa, txostenak proposatzen zuen “gobernuaren eta alderdi sozialen arteko ekimen bateratu bat abiatzea, langileak denbora luzeagoz aktibitatean iraunarazteko”; ekimen horrek honako alderdi hauek landuko lituzke: prestakuntza jasotzeko bideak eskaintzea, lan baldintzen eta lanaren antolakuntzaren kalitatea hobetzeko tresnak, eta erretiro aurreratua konponbidetzat hartzeari uko egitea, enpresaren ekoizpen jardura murriztea eta beraren birmoldaketa planteatzen denean.

Orobat, zerga- eta prestazio-sistemak berraztertzea proposatzen du, bai erretiro aurreratua sustatzen duten pizgarriak ezabatzeko eta bai lan merkatuko parte-hartzean eragina duten neurriak aztertzeko; adibidez: pizgarri-sistemak eta erretiroaren ostean lana onartzea zigortzen duten neurriak. Helburu horiek are gehiago urrunduko dira EB handitzen denean, Estatu berrien enplegu tasa txikien ondorioz⁷. Bartzelonako Kontseiluaren formulazioa aldatuta geratu zen geroago, “Erretirora jotzeko adina bost urtez igotzea” izeneko Txostenean. Horrek esan nahi du erretiroaren adina 65 urteraino igoko litzatekeela, kontuan hartuta zein zen, 2005ean, lana uzteko batez besteko adina EB-25en: 59,4 urte emakumeentzat eta 60,7 urte gizonentzat (ikus 1. koadroa).

⁶ UE-27en kasuan, 6,5 puntura dago Lisboako eta Stockholmeko Kontseiluetan 2010 urterako adostutako %50etik -2006ko tasaren %15aren adinakoa-. Erresuma Batuak, Portugalak eta -bereziki- Danimarkak eta Suediak bazituzten %50etik gorako tasak 2001ean; Polonia, Italia, Belgika eta Austriak, aldiz, oso tasa txikiak zituzten.

⁷ Batzordearen “Eraman dezagun Lisboa praxira: erreformak Batasun handituarentzat” Komunikazioak -COM (2004) 29-elementu hauek aipatzen ditu esplikatzeko enplegu tasa txiki horiek (Estatu Batuetakoa baino 9 puntu gutxiago) eta produktibitatearen hezkunde txikia (negatiboa izan da laurogeita hamarreko hamarkadan): komunikazioaren teknologia berriak (KIT) ahulak izatea eta berandu ezarri izana, eta inbertsio pribatu eta publikoen tasa motela. Inbertsio motelak jokatzeko duen rola garbi dago, baina KITen eragina eztabaidagarriagoa da (BUSTER, 2004).

1. KOADROA: LAN MERKATUA UZTEKO BATEZ BESTEKO ADINA, 2005



	Batez besteko adina		Adinaren balio zentrala (egitura adhiérasela)	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
BE	56.8	57.9	59.6	661.6
BG	57.6	60.9	58.4	662.4
CZ	57.2	61.0	59.1	662.3
DK	60.1	62.2	60.7	661.2
DE	59.9	61.6	61.1	661.4
EE	61.4	65.0		
IE	61.5	64.4	64.6	663.6
EL	58.4	61.7	61.0	662.5
ES	59.5	62.6	62.8	662.0
FR	58.3	58.8	59.1	568.5
IT	57.2	58.4	58.8	660.7
Cy	59.3	65.0		
LV	60.3	61.6		
LT	59.8	63.4		
LU	58.7	57.7		
HU	57.2	59.6	58.7	661.2
MT	58.8	60.4		
NL	59.3	60.5	61.4	661.6
AT	56.4	59.6	59.4	660.3
PL	55.2	57.0	57.4	662.0
PT	61.4	64.2	63.8	662.4
RO	58.6	61.3	61.5	664.7
SI	55.2	59.5		
SK	55.5	60.2	57.6	661.1
FI	60.7	61.5	61.7	661.8
SE	63.3	63.9	63.0	664.3
UK	60.3	63.8	61.9	663.4
HR	56.2	60.1	57.4	660.5
EU-25	59.4	60.7	60.4	661.4

Iturria: Eurostat, Labour Force Survey and Structural Indicators for Employment

Helburu horiek ez betetzea nahiko arrunta da. Hala, Europako Enpleguari buruzko 2006ko Txostenaren arabera (EUROPAKO BATZORDEA, 2006), enplegu tasa bateratua edo orokorra %63,8 zen 2005ean. Urte horretan, EBko 25 herrien artean, 7k soilik betetzen zuten adineko langileentzat ezarritako helburuak: Suedia, Danimarka, Erresuma Batua, Estonia, Portugal, Finlandia eta Irlandak. Adin-tarte horretako enplegu tasek EBko herri batzuetan izan duten igoera –enpleguaren igoera txikia izan den herrietan ere– ez da enplegu politiken ondorioa soilik izan, zeren zahartzaroko pobrezia ere rol garrantzitsua jokatu baitu (SARFATI, 2006), horren prezioa kalitate eta ordainsari eskaseko lanak onartzea izan bada ere.

4. HOBARIAK ETA ZERGA-SALBUESPENAK EZARTZEKO JOERA GERO ETA HANDIAGOA, ENPLEGU POLITIKAREN TRESNA GISA

Gizartearen ikuspuntutik onargarriak direnean, Enpleguaren Europar Estrategiak bilatzen dituen helburuak disuasio-neurri legalen bidez lortu litezke (adibidez: aipatutako kolektiboen kaleratzeetan kalte-ordain handiagoak emanez). Dena dela, finkatuta dagoen joera ez da hori, baizik eta hobariak ematea eta zergak eta kotizazio sozialak arintzea. Neurri horiei "politika aktiboak" deitzen zaie; langabeei prestazioak ordaintzea, aldiz, "politika pasibotzat" jotzen da. Lehenengo neurri motak sahestuko luke Gizarte Segurantzaren erregimen publikoen deskapitalizazioa, eta, beraz, langabeziaren babesa kudeatzen duten erakundeen fondoak langabeen babesa hobetzera bideratuko lirake. Izan ere, kolektibo horren babes mailak behera egin du arian-arian, legedian egindako aldaketa murriztaileen konbinazioaren eraginez.

Kotizazioak murrizteko programek enpleguan duten eraginkortasunari buruz egindako azterlan objektiboek eta zorrotzek frogatu dutenez, kotizazio sozialak murrizteko herri askotan hartu diren neurriek enpleguan izandako eragin garbia oso txikia izan da haien kostuaren ikuspuntutik⁸. Horrez gain, baina, kotizazioen murrizketa selektiboaren bidez sustatu nahi izan diren kolektiboen enpleguan izandako emaitzak ere oso motelak izan dira: ehuneko garrantzitsu batek -%50 eta %70 bitartekoak- lana aurkituko zukeen edozein kasutan, eta, hala, alferrikako gastua %85-90raino iritsi da. Alferrikako gastuari gehitzen badiogu kontratatutako pertsonen ordez ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak kontratatzeak ekarritako gastua, metatutako gastu horren ondorioa da diru-laguntza selektiboek enpleguan izandako efektu garbia oso txikia dela, hots, %10aren ingurukoa -neurri horien asmoa zen posizio ahulean dauden kolektiboek lan merkatura iristen edo hor irauten laguntzea-. Eraginkortasun arazo horiez gain, justiziari lotutako kontuak ere badaude; izan ere, enpresek eskuratzen dituzten fondo publikoak herritar guztiak finantzatzen dituzte, eta, beraz, sarrerak modu erregesiboan birbanatzen dira.

5. MALGUTASUNA, ENPLEGUA SORTZEA ETA ERRENTA BANATZEA

Langabeziaren jaitsiera izan da Europar Batasunaren politika desarautzailea justifikatzeko gehien erabili den aitzakia; izan ere, Europa "zurruntasunaren" adibide bezala aurkezten da Estatu Batuen "malgutasunaren" aurrean. Hala eta guztiz ere, ez da frogatu lotura garbia dagoenik langabezia tasen eta lan merkatuen ezaugarrien artean, ezta Europar Batasunaren zurruntasunak -Estatu Batuen aldean- enplegu sorrera txikiagoa esplikatzen duenik ere. Europar Batasuneko eta Estatu Batuetako lan merkatuak alderatzen dituen azterketa batean, NAVARROK (1998) erakutsi zuen ez dagoela inongo loturarik malgutasun handiagoaren eta enplegu sorreraren artean, Estatu Batuen kasuan; izan ere, Europako merkatu batzuek, merkatu arautuagoekin, enplegu gehiago sortu dute laurogeiko eta laurogeita hamarrekoko hamarkadetan. Geroago egindako beste azterlan batek (F. Vergara, Hუსsonek aipatu, 2007) argitzen zuenez, 1997ko maiatzetik 2006ko maiatzera, Estatu Batuek 14,5 milioi lanpostu sortu zituzten; 15 Estatu EBk, berriz, 16,3 milioi sortu zituen garai berean, hau da, urtean ehuneko berdina zuten AEBek eta EBk, enplegu sorreraren aldetik: %1,12. Reaganen garaiaz geroztik egindako malgutze-erreformek prozesu hori geldotu zuten Estatu Batuetan, bizkortu baino gehiago. Europar Batasunak AEBek beste lanpostu sortzen ditu, nahiz eta beraren hazkunde demografikoa geldoagoa den.

⁸ Hurrengo datuen iturria MARX (2001) da, herri batzuetako azterlan ugari bilduta. Espainiar Estatuko lan merkatuaren politika aktiboek buruzko azterlan batean, ALUJAS RUIZek (2003) aipatzen du politika horien eraginkortasunaren ebaluazioan dagoen gabezia, eta konklusio hau ateratzen du: "ez dirudi Espainiako politika aktiboaren konposizioan kontratazioentzat dauden diru-laguntzen pisu handia justifikatuta dagoenik, ebidentzia enpirikoaren ikuspuntutik begiratuta.

Horren arrazoia da produktibitatearen hazkundera erabat bateragarria direla soldatek errenta nazionalen duten partaidetzaren igoerarekin. GIUSSANIK (2000) azaltzen duen moduen, horrek eskatzen du langileek indar korrelazio nahikoa izatea metaketaren eta hazkunderaren baldintzei etekina ateratzeko, gerraren osteko boom ekonomikoan gertatu zen bezala. Enplegua sortzearen eremuan Europar izandako lorpenak mardulak izan dira: hamar milioi lanpostu 1996 eta 2001 urteen bitartean; horietatik, 2 milioi lanpostu Frantzia sortu ziren, neurri handi batean lanaldia laburtzeari esker; dena dela, lorpen horiek ez dira etorri lanaren kostua murrizteko errezeta neoliberalen eskutik. Aitzitik, eragilea kontsumoaren igoera izan da, ekonomia konbentzionalaren proposamenak praxian erlaxatu izanak bultzatuta, batez ere euroa ahula zelako dolarraren aldean eta soldatek etekina atera diotelako, neurri batean, produktibitatearen igoerari. Dena dela, langabeziak hogeitaz maila altuan iraun izanak eta enpleguaren kalitatearen beherakadak esplikazio bakarra dute, hots, Europar Batasunak eta beraren kide diren Estatuak gauzatutako enplegu politikak.

Frantzia egindako lanaldiaren laburketak - Aubry I. eta II. izeneko legeen eskutik - agerian utzi zuen neurri horrek enplegua sortzeko duen ahalmena. Lanaldiaren laburketa soldata-konpentsazioen bidez edo lanaldiaren antolaketa murriztearen bidez (txandaka, gauzez edo jaiegunetan lan egitera pasatzea) finantzatzen bada, ahalmen hori murriztu egiten da, zeren soldatako langileen kontura lortzen den produktibitate igoerak lanaldi laburtzearen efektuak berdintzen baititu. 1998 eta 2002 urteen bitartean, BPGaren igoera berdintsua izan zuten europar herrietan artean, Frantzia izan zen soldatako enpleguaren hazkunderik handiena izan zuen herria, lanaldi oso lanegunetan neurtuta. Danimarka, Holanda, Erresuma Batua, Portugal, Finlandia eta Suedia, enpleguaren hazkundera jardura ekonomikoa baino 3-5 puntu txikiagoa izan zen; Frantzia, berriz, diferentzia hori 2 puntu soilik izan zen, hau da, hazkundera "aberatsagoa izan zen enpleguaren ikuspuntutik". Italian, Portugalen eta Espainiar Estatuan, enpleguaren hazkundera BPGaren hazkunderaren antzekoa edo bera baino handiagoa izan zen garai horretan (%13,7ko igoera BPGan eta %14,2koa soldatako enpleguan), baina herri horiek badute ezaugarri berezi bat, alegia, enplegu independenteak osoko enpleguan duen ehunekoa oso handia dela EBko beste herri batzuen aldean; hortaz, herri horiei dagokienez, pentsatzekoa da haien hazkundera enplegu independentea edo ezkutua aldatu eta soldatako enplegu bihurtu duela.

Europar Batasunak proposatzen duen enplegu betea "sui generis" da: beraren oinarria da lanaldi partziala bultzatzea gero eta pertsona gehiagorentzat, batez ere emakumeentzat; kasu asko-askotan, horrek soldata oso txikiak ekartzen ditu, eta oztopo larria da lanbide prestakuntza eta promoziorako.

Horrek erakusten du, aldi baterako kontratazioaren hazkunderarekin batera, enplegu estandarrak Europar izandako atzerakada; izan ere, enplegu horren orde lan atipikoak ari dira nagusitzen, enpleguaren kalitatea hondatzeaz batera: 1991 eta 2002 urteen bitartean, lanpostuen osoko kopurua bederatzi milioi igo zen EBN, baina aldi baterako kontratuen eta iraupen mugatuko kontratuen kopuru osoa 16 milioi igo zen; kontratu tipikoek, aldiz, 7 milioi murriztu ziren. Gainera, enpleguaren alorrean egin diren erreformek, beraren "aktibazioa" aitzakiatzat hartuta, beherantz eraman dute "enplegu egokiaren" definizioa (enplegu horri uko egiteak langabezia-prestazioak galtzera darabena). Bilakaera horrek ekarritako prekarizazioa agerian geratzen da EUROSTATen datuetan; izan ere, datu horien arabera, soldatek BPGan duten pisua arian-arian murriztu da azken urteotan: %75,8 1981ean, %68 1993an eta %64 2006an. Euro zonako soldaten eta lan kostuen garapenari buruz Batzardeak egindako txostenak bilakaera hori aitortu du, eta gainera hauxe dio: "lanaren kostu nominal unitarioen hazkunderaren eritimoa prezioen egonkortasun helburua -%2- baino askoz ere motelagoa izan da azken urteotan", eta, horren eraginez, langile bakoitzeko diru-sarrerak "inoizko hazkunderik txikiena izan dute: %2,6 1995 eta 2005 urteen bitartean".

Espainiar Estatuan, Espainiako Bankuaren arabera, soldatako langileen ordainsaria BPGaren %60 zen 1986an, eta %47,2 2005ean. Beheranzko joera horrek bere horretan jarraitu du azken urteotan (1995ean %50,1 zen, 2003an %48,5 eta 2004an %48,0); Ekonomia eta Diru Batasunari (UEM) eta EAERI dagozkion ehunekoak osoa antzekoak dira, zeren hor ere beheranzko joera izan baitute azken urteotan (ikus koadroa).

2.- KOADROA. ERRENTAREN BANAKETA EAEN, ESPAINIAR ESTATUAN ETA UEMN

	Milioi euro				%			Urteko aldaketa (%)		
	2002	2003	2004	2005	2003	2004	2005	02-03	03-04	04-05
EAE										
Soldatiko langileen ordainsariak	22.905	24.308	26.198	27.979	49,0	48,8	48,6	6,1	7,8	6,8
Ustiapen soberakin garbia	14.682	15.463	16.638	17.812	31,2	31,0	31,0	5,3	7,6	7,1
Kapital finkoaren kontsumoa	4.357	4.677	5.093	5.414	9,4	9,4	9,4	7,3	8,9	6,3
Diru-laguntzen zerga garbiak	4.616	5.125	5.073	6.344	10,3	11,0	11,0	11,0	11,3	11,2
BPG, merkatuko prezioak	46.559	49.573	53.632	57.549	100,0	100,0	100,0	6,5	8,2	7,3
ESTATUA										
Soldatiko langileen ordainsariak	355.653	378.653	401.878	426.498	48,5	48,0	47,2	6,5	6,1	6,1
Ustiapen soberakin garbia	200.109	210.644	223.109	241.662	27,0	26,6	26,7	5,3	5,9	8,3
Kapital finkoaren kontsumoa	102.615	112.666	124.796	138.04	14,4	14,9	15,3	9,8	10,8	10,6
Diru-laguntzen zerga garbiak	70.644	78.587	87.533	98.117	10,1	10,5	10,8	11,2	11,4	12,1
BPG, merkatuko prezioak	729.021	780.550	837.316	904.323	100,0	100,0	100,0	7,1	7,3	8,0
UEM										
Soldatiko langileen ordainsariak	3.551.300	3.636.882	3.733.460	3.835.278	48,9	48,2	48,1	2,4	2,7	2,7
Ustiapen soberakin garbia	1.832.691	1.888.050	1.998.421	2.060.015	25,4	25,8	25,8	3,0	5,8	3,1
Kapital finkoaren kontsumoa	1.021.872	1.051.406	1.092.923	1.126.164	14,1	14,1	14,1	2,9	3,9	3,0
Diru-laguntzen zerga garbiak	839.751	867.691	915.768	958.886	11,8	11,8	12,0	3,3	5,5	4,7
BPG, merkatuko prezioak	7.245.614	7.444.029	7.740.572	7.980.34	100,0	100,0	100,0	2,7	4,0	3,1

Oharra. Ustiapen soberakin garbiak kapitalaren eta soldatikoak ez den lanaren errentak hartzen ditu barne.

Kapital Finkoaren kontsumoak ekoizpen-ekipoak urtean zehar izandako balio-galera hartzen du barne.

Diru-laguntzen zerga garbiak administrazio publikoari dagozkionak dira, ekoizpen eta inportazioari lotuta (diru-laguntzen garbiak).

Iturria: EAEko EGKaren 2006ko Oroitidazki Sozio-ekonomikoa; oinarriak: Eustat, INE eta Eurostat.

Azken legegintzaldian izandako igoerak gorabehera, oraindik ere alde handia dago indarrean dagon gutxieneko soldataren eta EBko herri askotan aplikatzen direnen artean: 665 euro -hilean-Espainiar Estatuan, 1.254 euro Frantziar Estatuan¹⁰, 1.301 euro Holandan, 1.361 Erresuma Batuan, 1.403 Irlandan eta 1.570 Luxenburgon. Enplegu berriari begiratu gero, azpimarratzekoa da langile gehienek gutxieneko soldata kobratzen dutela edo, askoz jota, "mileuristak" direla. Gainera, gutxieneko soldata txiki horrek badu eragina soldata hori erreferentziatzen hartzen duten prestazio sozial ugarietan. PSOEn hauteskunde-promesek arazo sozial larri hori zuzendu dute nolabait, baina ez dute konpondu. Izan ere:

Espainiar Estatuan, enpresarien mozkinak %73 igo dira 1999 eta 2006 bitartean (Europar Batasuneko batezbestekoa baino bi aldiz gehiago). Zuzendaritzako pertsonalaren soldatak, IBEX-35ean sartuta dauden euskal enpresen kontseilarien kasuan, 500.000 euro dira urtean. Mozkin horiek modu oso partzialean bideratu dira inbertsiora eta enplegura, dibidenduaren banaketaren datuak adierazten duen moduan: garai horretan, banatutako dibidendua %47 hazi da.

6. MALGUSEGURTASUNA (FLEXICURITY): ASMAKIZUN BERRIA

2004-2005etik aurrera, Lisboako Agendaren berrikuspenarekin, Enpleguaren Europar Estrategiak garrantzia galdu du, gai ekonomikoen eta barne merkatuaren gaien mesederako (Bolkestein Zuzentaraua).

Testuinguru horretan, Europako Batzordeak Liburu Berde bat aurkeztu zuten 2006ko azaroan, "Lan zuzenbidea modernizatzea eta indartzea XXI. mendeko erronkei aurre egiteko" izenburuarekin.

¹⁰ J. Basterrak aipatzen zuen moduan (Gara, 2007-10-14), Iparraldean gutxieneko soldata kobratzen duten herritarrek Hegoaldean baino 589 euro gehiago kobratzen dute; Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan, 130.000 pertsona daude guztira egoera horretan.

Beraren helburua zen “Lan Zuzenbidea modernizatzea Lisboako Estrategiaren helburuari eusteko, hots, modu iraunkorrean hazteko, enplegu gehiago eta hobeekin”. Liburu berdearen arabera, lan harremanaren eredu tradizionala zaharkituta geratu da, “babestuegia delako”, eta, beraz, beharrezkoa izango litzateke beste kontratu-eredu batzuk garatzea. Lan merkatuko segmentazioa murrizteko xedez, hau da, “integratuen” eta “baztertuen” arteko aldea murrizteko xedez, Europako Batzordeak kontratu klasikoaren malgutasuna handitzea proposatzen du. Halaber, kaleratzearen kontrako babesaren murrizketa eskatzen du, zeren “gehiegizko babesak” lan merkatuaren dinamismoa murrizten baitu, eta, horrenbestez, emakumeek, gazteek eta adineko pertsonak aukera gutxiago dituzte lana aurkitzeko. Azken batean, Batzordeak uste du Lan Zuzenbidearen babes-intentsitatea murriztea funtsezko elementua dela langileen eta enpresen egokitzapen ahalmena sustatzeko.

Liburu Berdeak ez du ia ukitzen lan zuzenbide kolektiboa. Lan zuzenbidearen eginkizun tradizionala -lan harremanaren alderdirik ahulena indartzea, ugazaben agintea enpresan mantentzearen truke, legedi babeslea garatzearen bidez eta sindikatuari boterea onartzearen eta ematearen bidez, batez ere eraginkortasun orokorreko hitzarmen kolektiboen bidez -erabat desorekatuta geratzen da.

Batzordeak Danimarkako eredu hartu zuen adibidetzat, baina ez kasualitatez. Izan ere, Suediako emaitzak Danimarkakoaren antzekoak izan arren, Suediak askoz ere malgutasun txikiagoz lortzen ditu emaitza horiek. “Malgusegurtasuna: Danimarkako kasua” gaiari buruz Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak egin zuen txostenean, honela deskribatzen da Danimarkako ereduak:

Malgusegurtasun (flexicurity edo flexisecurity ingelesez, flexiseguridad gaztelaniaz) kontzeptua, funtsean, malgutasuna eta langileen segurtasuna bateragarri egitea da, babes soziala eta lehiakortasuna aldi berean bermatu ahal izateko. Danimarkako malgusegurtasunaren modalitateak segurtasuna ematen du, alde batetik, langabeziako diru-prestazio handia emanez (eta errenta beste kanal sozial batzuen bidez birbanatuz); bestetik, malgutasuna eskaintzen du kaleratze neurri liberalen bidez -adibidez: aurre-abisuko epe txikiez-. Babes soziala eta mugikortasun maila handia lan merkatuko politika aktibo batez konbinatzen da; era horretan bermatzen da langabea benetan dagoela prest lan merkatutako eta bere lanbide-kualifikazioak hobetzen dituela. Lan merkatuaren politika daniarrak bai pizgarriak eta bai zehapenak hartzen ditu barne -adibidez, berrakibazioa edo lanera derrigorrez itzultzea-, baina nagusitzen dena eskaintza kualitatiboa da, kualifikazioen birziklapenera begira. Lan politika aktiboa ezinbesteko tresna da lan merkatuak eraginkortasunez funtzionatu dezan, langabeziako diru-laguntza handi bati lotuta.

Danimarkako sistemak kaleratzeari buruzko araudi oso malgu bat uztartzen du langabeziarako prestazio oparoekin; izan ere, prestazio horiek kobratutako azken soldataren %90eraino iristen dira, lau urtez (gehieneko muga 1.800 euro dira, hilean), eta, gainera, baditu prestakuntza-sistema aurreratu bat eta lanbide-sailkapena birmoldatzeko laguntzak. Sistema hori legezko esparru oso txikian oinarritzen da, zeren legeak ez baitu ezartzen ez gutxieneko soldatarik ez lanaren legezko iraupekin, ez du grebarako eskubidea bermatzen, eta ez du inolako eredurik ezartzen lan kontraturako. Hala eta guztiz ere, bai gutxieneko soldata (12 euro ordu bakoitzeko, gutxi gorabehera) eta bai lanaldiaren iraupena (37 lanordu astean), negoziazio kolektiboaren bidez adostuak, Europako batezbestekoak baino hobeagoak dira. Kaleratzearen erregulazio malgua erabili egiten da: urtero lanpostuen %10 ezabatzen dira, gutxi gorabehera, eta beste horrenbeste sortzen dira; halaber, langileen %30 lanpostuz aldatzen dira urtero, eta horrek esplikitzen du zergatik duen Danimarkako ereduak hainbesteko onarpena pentsalari liberalenen aldetik (Zubero, 2007)¹¹.

¹¹ Zuberoren esanetan (2007), Danimarkako ekonomiak oso irekitasun maila handia du (Danimarka munduko bosgarren herri globalizatuena da, AT Kearney aholkularitza-etxeak eta Foreign Policy aldizkariak kalkulaturako indizearen arabera). Autore horren arabera, horrek galdera bat plazaratzen du, hots, nola lortzen ote du Danimarkak “malgusegurtasun” globalizatu hori konbinatzea?”. Globalizazio horrek kualifikazio gutxiagoko langileak ukitzen ditu batik bat. Orain arte, Danimarkak arrakasta batzuk lortu ditu erroka horien aurka, kualifikaziorik gabeko langileen kopurua murriztu baitu. Nolanahi ere, Europar Batasunaren Ekonomia eta Gizarte Batzordeak eredu daniarrari buruzko txostenean dioen bezala, eredu horrek tentsioak pairatzen ditu, eta horren ondorioz “enpresa batzuek itxik eta beren ekoizpen-operazio batzuk edo guztiak lekualdatzen dituzte soldata-kostu txikiko herrietara.

Dena dela, ez da egia Danimarkak enplegu kopuru izugarria sortu duenik azken urteotan: azken hamarkadan, enpleguen %5 sortu zituen, eta Frantziak %10. Danimarkak Frantziaren aldean duen langabezia tasa txikiagoaren arrazoia biztanleria aktiboa da (Coutrot, 2006): erretiro aurreratuen eta iraupen luzeko gaixotasun-baimenen igoerari esker, Danimarkako jarduera tasa (lan egiteko adina duten biztanleen artean, lanean ari diren edo enplegua bilatzen ari diren biztanleen proportzioa) nabarmenki jaitsi da 1990 eta 2004 urteen bitartean: 8 puntu 15-24 adin-tarterako eta 3 puntu 25-54 adin-tarterako. Gaur egun, 15 eta 64 urte bitarteko daniarren %20 lan merkatutik irten dira mekanismo horiei esker. Garbi dago, jakina, kualifikazio txikieneko pertsonak direla horiek, eta baita osasun hauskorrena duten pertsonak ere, hau da, enpresek "ezin enplegatuzkotzat" jotzen dituztenak nazioarteko lehiari aurre egiteko. Aldi berean, erretiroaren adin efektiboak atzera egin du, zeren jarduera tasa 9 puntu igo baita garai horrexetan. Horrenbestez, fenomeno konplexua da: enplegu tasa egonkor mantendu da orokorrean; aldi berean, langabezia tasa murriztu egin da, jarduera tasaren jaitsierari esker, adineko pertsonen kasuan izan ezik, zeren hauentzat bai enplegua eta bai jarduera igo baitira".

Alemania kontrakoa adierazten duen beste adibide bat da: Chagnyk (2006) azaltzen duenez, soldadak moteldu diren arren, eta Agenda 2010aren eskutik Schroederrek bultzatu eta Angela Merkelen Gobernuak mantendu dituen malgutze-erreformak gorabehera -funtsean, politika horien xedea zen langabeak "aktibatzea" eta langabezia prestazioak murriztea-, lehiakortasuna modu esanguratsuan bizkortzea lortu bada ere, politika horrek Alemaniako esportazioak indartu ditu, baina, barneko eskaria blokatu duenez, hazkundea eta enplegua murriztu ditu.

Azken batean, malgutasunaren eta lan-indarraren artean nolabaiteko lotura dagoela onartu arren, okerra da hortik ondorioztatzea malgutasuna enpleguak sortzeko iturri denik: enplegu sorrera hori handiagoa izan liteke eskaria hazten den garaietan, baina enpleguaren murrizketa are handiagoa izango litzateke eskaria gutxiago igotzen den edo behera egiten duen garaietan. OCDEren jarrerari buruzko azterlan batean, Hussonek (2007) gogoratzen du nazioarteko erakunde horrek indize sintetiko bat prestatu zuela 1999an, malgutasunaren gradua neurtzeko. Horretarako, hiru talde nagusi bereiztu zituen Europan. Mediterraneoko herriak, Frantzia eta Eskandinaviako herriak herri "zurrunen" taldean zeuden; Danimarka, Suitza, Irlanda eta Erresuma Batua, berriz, herri "malguenak" ziren. Hala eta guztiz ere, 1999ko Enpleguaren Perspektibak txostenean, OCDEk aitortu behar izan zuen ezinezkoa zela lotura bat ezartzea adierazle horren eta enplegua sortzeko ekimenen emaitzen artean: "ez da argitu zergatik herri jakin batzuek lortzen ote duten araudi zorrotza eta langabezia tasa txikia uzartzea". 2004ko Enpleguaren Perspektibak dokumentuan, OCDEk onartu behar izan zuen enpleguari buruzko legediak "enplegua babesten duela" baina langabezian duen efektua ambigua dela: "gai horren inguruan egindako ebaluazio ugariak emaitza motelak eta -batzuetan- kontraesankorrak ekartzen dituzte, eta ezin da beti haien sendotasuna segurtatu".

Horrenbestez, gutxieneko zintzotasun intelektualez eta seriotasunez jokatzaz gero, ezin baieztatu daiteke "malgutze-erreforma estrukturalak" eragin positiboa dutenik enpleguan; bestalde, esan daitekeena da prekarizazio-neurri horiek gazteak eta emakumeak ukitzen dituztela gehienbat; hala, OCDEren arabera, emakumeek gehiegizko neurrian pairatu lezakete erreforma horien eragina". Hala, enplegu malguen eta iraunkorren arteko tratu desberdintasun horrek "handitu egin lezake lan merkatuko dualtasuna". Gainera, malgutze-erreformek badute beste efektu orokor bat, berebiziko garrantzia duena: langileen segurtasuna eta egonkortasuna jaisten diren neurrian eta lan legediaren eta hitzarmen kolektiboen rol bermatzailea murrizten den neurrian, langileek erresistentzia ahalmena galtzen dute enpresari erabakien aurrean, bai soldaten ere muan eta bai lan baldintzen eremuan.

BIBLIOGRAFIA



- ALUJAS RUIZ, J.A., Políticas activas de mercado de trabajo en España. Situación en el contexto europeo, CES, 2003.
- BISCHOFF, J., "Un nouveau mode d'accumulation?", AA.VV., Capitalisme: quoi de neuf?, Editions Syllepse et Espaces Marx, Paris 2002, 83-98. orrialdeak.
- BUSTER, G., "La estrategia de Lisboa de la Europa neoliberal", Viento Sur, 74. zkia., 2004, 70-80.
- CARONE, G., "Long-term labour force projections for the 25 EU Member States: A set of data for assessing the economic impact of ageing", European Economy-Economic Papers, 235. zkia., 2005, 1-213.
- CHAGNY, O., "Les réformes du marché du travail en Allemagne : un exemple à (ne pas) suivre ?", AA.VV. (M. Husson, Dir.), Travail flexible, salariés jetables. Fausses questions et vrais enjeux de la lutte contre le chômage, La Découverte, Paris, 2006.
- COHEN, E., "Gouvernance d'entreprise: une grande diversité de modèles", Problèmes économiques, 2.778. zkia., 2002, 3-9.
- EUROPAKO BATZORDEA, Employment in Europe 2006, European Communities, Belgika, 2006.
- COUTROT, T., Critique de l'Organisation du Travail, La Découverte, Paris, 1999.
- « Une "flexicurité" à la française ? », AA.VV. (M. Husson, Dir.), Travail flexible, salariés jetables. Fausses questions et vrais enjeux de la lutte contre le chômage, La Découverte, Paris, 2006.
- DE LA PORTE, C., "Enjeux et perspectives de la dimension social de l'élargissement", Belgian Review of Social Security, 43. liburukia, Special issue, 2003, 253-273.
- DE LA PORTE, C. y POCHEP, P., "The European Employment Strategy: existing research and remaining questions", Journal of European Social Policy, 14. zkia., 2004 (1), 71-78.
- DUMENIL G. y LEVY D., Crise et sortie de crise, PUF-Actuel Marx Confrontation, Paris, 2000.
- FAYOLLE, J., "La politique économique dans l'UEM", Document de Travail de l'IREs, 4. zkia., 2004.
- FERNÁNDEZ STEINKO, A., "Democracia económica y legitimidad política", Lan Harremanak, 12. zkia., 2005, 67-82.
- GIUSSANI, P., "¿Hay una evidencia empírica hacia la globalización?", AA.VV. (Arriola, J. y Guerrero, D., Coords.), La nueva economía de la globalización, Euskal Herriko Unbiertsitatea, 2000, 299-322.
- HUFFSCHMID, J., "Redistribution, marchés financiers et contre-réforme", en AA.VV., Capitalisme: quoi de neuf?, Editions Syllepse-Espaces Marx, Paris, 2002, 257-266.
- HUSSON, M., "Flexibilité et emploi", IRES-La Lettre, 70. zkia., 2007.
- MARX, I., "Subvenciones al empleo y reducción de las cotizaciones empresariales. Dictamen de los estudios empíricos", Revista Internacional del Trabajo, 120. liburukia, 2001, 1. zkia.
- NAVARRO, V., "Los mercados laborales y la cuestión social en la Unión Europea (incluyendo notas comparativas con EEUU)", Sistema, 143. zkia., 1998.
- NIKONOFF, J., La Comédie des fonds de pension, Arléa, Paris, 1998.
- PLIHON, D., "L'Economie des fonds propres: un nouveau régime d'accumulation financière", AA.VV. (F. CHESNAIS y D. PLIHON, Coord.), Les pièges de la finance mondiale, Syros, 2000, 17-37 (Las trampas de las finanzas mundiales izenarekin gaztelanierara itzulita, Akal, 2003).
- ROTURIER, P. y SERFATI, C., "Enron, la "communauté" et le capital financier", Revue de l'IREs, 40. zkia., 2002, 7-37.
- SARFATI, H., «El diálogo social «camino real» hacia las políticas que abordan la cuestión del envejecimiento en los Estados miembros de la Unión Europea», RISS, 59. liburukia, 2006/1, 55-83.
- SERFATI, C., "La domination du capital financier: quelles conséquences?", AA.VV. (F. Chesnais y D. Plihon, Coord.), Les pièges de la finance mondiale, Syros, Paris, 2000, 60-77.
- ZUBERO, I., "A qué huele en Dinamarca", Lan Harremanak, 16. zkia.

ORAIN ARTE ARGITARATURIKOAK

1. Klase borroka Europar Batasun berrian: eraikuntza europarrerako estrategia sindikala. -2004-

2. Euskal fiskalitatearen azterketa. -2004-

3. Gizonezkoek emakumezkoek baino %36 gehiago kobratzen dute. -2005-

4. Egungo europako itun konstituzionalari EZ. -2005-

5. Jai egunak bizi egunak. Igande eta jaiegunetan itxita. -2005-

6. Enpleguari buruzko txostena. 2004 urtea. -2005-

7. Bolkestein mehatxua. -2006-

8. Elkarrizketa soziala, negoziazio kolektiboa eta generoa. -2006-

9. Herri Palestinarraren errealitateari buruzko elkartasun zertzaladak -2007-

10. Energia nuklearra ez da etorkizuneko enegia -2007-